Erref. kodea: LAF-215-170

Izenburua: Eragiletza sozio-kulturaleko dokumentuak: *Euskararen Eguna*, 1949

- Maite oparia
[Sartarkol [Sauregi, Luis]

M A I T E - O P A R I A

Eskuara ikas,mintza;eskuara irakur;
lagunakin.etxean,ehle,solas,agur!
Y.B.Daranatz.

Aspaldi ez áŕen, gaur,amaren yai dogu;
Euskaldunon artean poz bebil yoria.
Artu, otoi, Euskera. abegi edeŕez
Olerkari gazteak dakartzun saria.

Odei aulkian lerden, eŕegin bai-ziñan,
Seme talde zangaŕa begi-uts inguru,
Areitz-koroiz bekoki,urtez zerbait makur,
Eguzki baizen eder zaitut nik amestu.

Eta goiz-intzez ezo oraindik yantziak,
Úrundik, mugaz zear, nozu etoŕia,
Biotz samur ta eztiz zuri eskintzera
Ama lez dagokizun maite-oparia.

Ba-dakit: gogoa itun ta biotza laŕi,
Oiñazetan luzero, ai!egona zaitut.
Arpegi goibel ori gura nik argitu;
Maitezko eskiñi au ortako dopaltzut.

Amak saŕitan oi dau begietan malko:
Semeen esker gaiztoa geienbat negargai.
Baña poz gorentsua bebil gaur ñirñirka,
Iŕi darion egun, bekigu ezkon-yai.

Gureari so egiñik, dana dogu eder:
Muin, biotz, baso, itxaso ta goi zoragaŕi;
Ta liíura guztiok leun ta mee yasorik,
Zume-saskian ditut zuretzat ekaŕi.

SSSSSSS

BIDAZTI

Oi, ene Abeŕia: igandik uŕuti,
Goibel bizi naz, oiñak ezain bide-autsez.
Baiña i aut nainon ames, naigabe-azkaŕi.
Noiz ezkotuko, baŕiz, ire ats epelez?

AITONA

Txoriak lez kabi nik maite sorteí,
Edur-mataza aspaldi daroat buruan;
Alan be, bertso baí ta ipuiñak garantzen
Ni aña zorótz danik, ete da inguruan?

NEKAZARI

Solo erdian ikus nekazaria zut,
Uŕezko gari-sail dau zibuka aurez aur;
Iñoiz min izan aŕen, onain da poz-yabe;
Zugana egazean oroimen-txori gaur.

AMA

Arnari elduz astun mendian zugatza,
Luŕalde ontan ez dot iñoren gutizi;
Motots goŕidun lore taldearen ama,
Asaben lege zar ta oituraz naz bizi.

EUSKO ALABA

Izar uŕuna iduri, or eusko alaba.
Zeurea dozu doai bitxiz apaindua;
Soin eder, biotzez su, laiño naiz eguzki,
Ames ta lei goitaŕez oso loratua.

ARTZAINA

Eder yat ziñez goia. Artzain gazte nozu.
Lagun ditut ardiak, txakur ta makila.
Esne ta gaztai ori deskintzut oparo,
Zugana bai-doakit biotz-min ixila.

ITxastar

Itxaso dot aberi, noiz bare noiz naspil;
Soiña ez daust iñok kate lodiz lotzen.
Uŕun giza-zuŕumil, yardun gogaikaŕi.
Oroen Yaun: Zu zaitut lei biziz goratzen.

GAZTEA

Argia gordetzean ikara lertxunak,
Ilargiak maite dau araneko itzala;
Ainbat maite zaitut nik, ene ele goxoa.
Dodan oro zuretzat: sen, biotz eta ala.

PADAR

Bafuan ots bat adi neban bien samufa,
Ta oro itxirik: ama, etxe ta lau oztin,
Bakar bizi naz gero ixilaren mende,
Aoan ele goxo ta biotza goimin.

OLAGIZON

Lufari ekiñean meatz gofi ostu,
Sutan efe ta antola: or gure arazo.
Naita soiñez baltz, gogoz edur baizen garden:
Euskeraz mintzatzea nok guri galazo?

IRULE

Goiz afe ta iluntz eze, eskuan kifua,
Ereñopean nago oiñazez asea.
Miña be su ez ete? Eun urtez ba'nirau,
Emen negoke beti, zori-irulea.

AFAUNLARI

Mee dagokit zabala, ixiltsu aizea...
Ta afaunlari kementsu, itxas zear noa.
Luze ta bardin, ezker-eskubi, afaunak;
Iñok ez dau uretan beetuko euskoa.

GUDARI

Gobei-gara iñoiz al dau etsai-oiñak zapal?
Aren muin baizen sendo bai-naz indafean.
Euskalefi maite ta xxxx onen legeen aldez,
Nok dau nik beste bular, guda-ekaitzean?

AREITZA

Zafez kikildurik Gernika'n areitza;
Enbor doneari ats eztia dario.
Sari ordez arek be. afats-argitara,
Agur, agur!diñotzu, oso pozkario.

ITXASO

Kantauri zabal-urdin, eusko yardun-leku.
-Bide zadortsu bafien erditze sotila-;
Ilun-argi zuntzakin kuku yolasean,
Oiuz dozu, eskuan bitsezko txanbila.

BASOA

Otza igazitakoan, or udalen yori;
Eguzkik yo ezkero, basoak dardar me.
Amaika txorik batez uŕezko zarata.
Ostoz yantzi da adaŕa; nor dau oŕen maite?

Yoalea

Eta eleiz-ezkilak? Oi, aren iskanbil!
Txori ta aizea lagun, zer diño itz-oska?
Mintzo ta mintzo, etenbako yardunean,
Zoraturik daukazu zuri agur leunka.

SSSSSSSSS

Or, olerki auzira nik dakartzudana.
Bizkai, Giputz, Araba ta Napaŕu alai,
Benabar, Zubero ta Lapurdi aintzatsu,
Zazpi ta bat, nik arnas goitaŕez kanta nai.

Ar, Euskera maite, nire aletxuok.
Zuk esku zuri leunez daustazuz loratu,
Zuk ene olermena irakin erazo,
Bekoki daustazu ez-ilkor ustaiz bildu.

Amak, aurtxo nintzala, zure maitasunez
Bigun gantzutu eustan izate osoa;
Aŕezkero zu zaitut ene ezkon zuria,
Aŕezkero zu zaitut ene yaki goxoa.

Txio eztika dago mendian karnaba,
Ituŕiak ura lez kanta dau berezko;
Niri be eder ba´yat zu goratutea,
Zeregin leial ori nok daust galazoko?

Ba-da, oŕaitiño, zu baldar yo zaituna.
Zu baldar zareala? Ez ori, maiteño.
Zauriz ta geixorik bai, ba-zagoz aspaldi;
Baiña baldar ez iñoiz, zoragaŕi baño.

Oi, ele, sua zara! Zuk indar oi nozu.
Gora zu, mintzo samur, lore maitagaŕi.
Zu ilten ba´zara, ai! zelan nik abestu?
Zu eortzi ezkero, nok ni pozez yaŕi?

Baiña ez, ez zara ilgo, ilezin zara-ta.
Oraindik ba-dozu su ta kemena ugari.
Landara bañi. mardul zu biurtzeañen,
Gain-gura dautzut ene zain-odola ixuri.

Sagartzazu, Kauldi

Bilarbeni

KRISTO-GURUTZEAN

I

¡Jaungoiko
Maitea,
Dana zauriz betea!...
Nigatik gurutzian
Oñazez il zorian...
Orrela
Zu ikusi...
Ta zotinka naiz asi.
¡Lertu zait
Biotza...
Mingatza
Dalako,
Jauna, zure eriotza!...

II

¡Il zera,
Jaun ona,
Jesus, nere zoruna!...
¡Nigatik Zu nekatu...
Ta nik ez Zu maitatu!...
¡Zu ziñan
Goiz-argi...
Ni...ekaitza...gau illundi!...
¡Egin det
Pekatu...
(Damu det
Biotzez...)
Arren, Jauna, barkatu!...

III

Lurretik
Goi-gora,
Igo zera Zerura.
Nik ere nai alde egin,
Bizi nai det Zurekin.
Gorputza
Baztertu,
Gogoa anitz maitatu...
Aingeru
Biurtu...
Ta kantak
Kantari
Zeruan ZU aintzatu.

BELARBERRI.

AURRA,LO... (Seaska kanta)

Lo egin zazu,maite,
Aurtxo zoragarria...
Lore usaiki polita
Goizeko izar argia.
Ez beldurrik izan,lo...
Ama zurekin dago;
Ez beldurrik izan,lo...
Ama zurekin dago.

+ + +

Lo egiten ba´dezu
Zerutik aingeruak
Pozik jatxiko dira
Zure seaskatxora.
Irribarreka,agurka,
Zurekin jolastera;
Irribarreka,agurka,
Zuri muxu ematera.

BELARBERRI.

GABON EGUNA (Gabon kanta)

Gabon eguna,
Egun zoruna...
Goiko mendian otz,elurra...
Etxean bero,
Apari ona,
Biotzetan alaitasuna...
Danak ospatu desagun
Pakean,gaurko gabona.

+ + +

Biotz guztitik
Gurtu desagun
Belen´go aur jaioberria...
Gugatik otzez
Dar-darka dago,
Zeru-lurreko izar-argia...
Muxuka bero desagun
¡Jauna´ren seme maitia!

BELARBERRI.

Olerki au bidali nuen orain urte
ba´tzuek "Euskaltzaleak"(Donostian)
egiten zuten "Olerti jaietarako".
Bidali ondoren...gero emen
guda sortu zan,eta...ez dakit zer
egin zuten.
Nik beintzat ez det ikusi iñongo Egunerokoan
argitaldua.Zuek erabaki,ote dan edo ez,inedit.

MATTASUN-GARRA

Mendi-mendian

Izar politaz betea ortzea...
Illargiak argitzen lurra.
Dana ixil-ixil...Bakarrik entzuten
Da itsas-aundiaren mur-murra...
....
Txit urrutian
Itsas-aldean
Lano gorrizka, ta bere aldetik
Asi egunaren argia.
Poliki,izarrak ezkutatzen dira;
Gorde da emeki illargia.

Txorrotxio,pi... Txoriño kutunak
Alai abesten asi dira.
Udaberriko egun-sentia da;
Goiz-argi txit garbi,ariña.
Euzki ederrak,
Euzki samurrak,
Diz azalduaz musu ain gorria
Irtetzen da mendi atzetik,
Ta bere izpiaz,izpi dizditsuaz,
Lur dana yartzen du urrezturik.

\+ + +

Udaberriko
Goizaldea:Zuk ematen didazu
Beti bizitzeko gogoa,
Ta maitatzeko txori,lore,mendi,
Baserri,nere lur osoa.
Eta poz-pozik
Biotz barrutik
Txoriñoak lez,kanta samurrakin,
Alaitzeko zelai,soroak.
Ta lore ederrak zabaltzen duten lez
Usai zoragarri,gozoa,
Nik zabalduko ditut ne gogoko
Maitasunezko loretxoak.

* * *

Bean, errian, beti miñez, ongi
Bizi ezintzeran gaztea;
Atoz, gora, ta zuk emen ez dezu
Izango or beko naigabea.
Mendi-mendian,
Basetxaldean,
Noiz nai daukazu dana maitagarri.
Biziera lasaia, poza,
Alaitasun on, eztiki gozoa,
Egizko gentza ta atsegiña.

¿Zergatik zuk ez dezu ba nai eldu
Ni bizi naizen baserrira?...
Emen, basoan, arkituko dezu
Errian ez dezun zoruna.
¡Neska gaztea,
Nere maitea!
Atoz, or bean gogo ta biotza
Bein betiko galdu baño len;
Zure zai dago lagun kutuna...atoz,
¡Ikasiko dezu maitatzen!

Egun oetan pozik entzun diot
Mendi'ko mutil gazteari,
Bertsotan alai kantatzen zuela
Esaten bere maiteari...
Neska ederra
Maite duela,
Ta bera gabe geldituko ba'litz
Ez lukela nai geigo bizi...
Nik entzundako bertso samur aiek
Ona emen gogo onez yarri:

MAITEA DAUKAT URRUTI

Ortzea odei beltzez dago-ta,ez da euzkirik ageri.
Zerua dagon lez illun nago...¡Maitea daukat urruti!
¡Maitea daukat urruti!

Baratz-zelaiak izotzez daude,mendiak elurrez,zuri..
Maiteagatik negu otza det,biotza naigabez,eri...
¡Biotza naigabez,eri!

Zuaitzak osto ta lore gabe,kabian ez da txoririk.
Udazkenean uxo maiteak,alde egin nere ondotik,
¡Alde egin nere ondotik!

Egun-sentian urretxindorrak orain ez abes alairik.
Aspaldi ontan ez det entzun nik maitearen itz gozorik,
¡Maitearen itz gozorik!

Ortzea odei beltzez dago-ta,ez da euzkirik ageri.
Zerua dagon lez illun nago...¡Maitea daukat urruti!
¡Maitea daukat urruti!

Lore gaxoak usai onik ez,usteldu ditu endiak.
Maitea-gatik negar-batean erreak dauskat begiak,
¡Erreak dauskat begiak!

Egazti-saillak goitik doazte,itzuri,leku otzetik.
Maitea bizi dan galde diet...ez dute bere berririk,
¡Ez dute bere berririk!

¡Nere maitea!Zergatik zaude beti nigandik urruti?...
¡Askoz obea eriotza da...!¡Ez det nai oñazez bizi!...
¡Ez det nai oñazez bizi!

Ortzea odei beltzez dago-ta ez de euzkirik ageri.
Zerua dagon lez illun nago...¡Maitea daukat urruti!
¡¡¡Maitea daukat urruti!!!

+ + + +

Zu bezelako neskatil batentzat
Egin omen ditu bertsoak.
Egiz dira bai maite zale baten
Itz eztitsu biotzekoak.
¡Lore usaiduna,
Nere laguna!
Atozkit goiko mendira len-bai-len,
Ni,zure maitea,il baño len.
Ne gurasoak arras zartu dira...
Atoz,pozik,ezkon gaitezen.

Neretzat eman didate-lan einaz
Bizi gaitezen-baserria.
Orain arte lez sendo gordetzeko
Antziñeko eusko kabia.
¡Uso zuria,
Nere eguzkia!
Zergatik egon or,bean,errian,
Mirabe bezteren mendean?...
¡Emen biziko gera azke ta pozik,
Beti lasai,pake ederrean!

Goiko Yaun ona beti izango degu
Gure yabe,gure nagusi.
Gure guraso euskaldun onak lez
Zindo bear degu guk bizi;
Ta biotzean
Eta gogoan
Amaitzen ez dan maitasun-aundia
Gure Sorleku goxoari;
Ta-ezpainetan euskera garbia
Erabilliko degu beti.

Atoz,ezkondu gaitezen emengo
Baseliz txiki,politean.
Orain emarak lez izan ditzagun
Gero ume ederrak kabian.
¡Nexka lirañak,
Mutil bikañak!
Bigarko eusko seme on,leialak,
Sorlekuaren onerako;
Gure abenda azkarra ez dedin
Amaitu ta galdu betiko.

Goizero otoitz Yaun onari,eskaka
-Arren-lanerako laguntza.
Eta gauean eskarrak emanaz
Lotarako berriz otoitza.
Orrela bizi
Zurekin beti
Nai det nik gure basetxe zarrean,
Guraso ta seme artean;
Beti kantari urretxindorra lez
Gentza dutela biotzean.

Ta bizitzeko bear diran gauzak
Gertuak ditut zuretzako.
Yan-edan onik gabe iñoiz etzera
Baserri ontan geldituko.
Baditut ollo,
Urdai-azpiko,
Gaztak,arrautzak,esne zuri ona,
Eta igali ederrak asko;
Ta Naparru´ko ardo zar,beltza ta
Nere sagastiko sagardo.

Gauz-oiek onak dira sabela ase
Ta soina sendo eukitzeko.
Bañan baditut beste gauzak ere
Beneten gogoa alaitzeko.
Orra baratza
Txit aberatza,
Dana loretxo politaz betea;
Zabaltzen dute urrin gozoa...
Ta aspaldi ontan zure zai daude...!Zu
Laztantzeko duten gogoa!...

Agur,maitea;len-bai-len etorri,
Erria dago ba galdua...
Emen,mendian,gauz bat nabaitzen det...
Urbil det egizko zerua....
¡Bizi laburra,
Gero beldurra!...
Orain on egin desagun,maitatuz
Gure Sorleku ta Yainkoa...
Gero il ondoren beti izan gaitezen
An,Goian,zorionekoak.

+ + + + + + + + +

Udaberri´ko illunabarra da;
¡Illunabar gozo,epela!...
Euzki gorria,itsasoan,anitz
Urrun,nagi-nagi gorde da.
Egun-alaia,
Egun-argia,
Orain illuntzen asi...ta txoriak
Azken abestiak abesten
Dabiltz,amaitzen dan egun-onari
Biotzetik agur esaten.

Ta bat-batean,goiko ortze urdinean
Illargi motela agertu da,
Ta illargiaren inguruan izar
Politak ere ikusten dira.
Egun-alaia,
Egun-argia,
Orain gelditu da anitz illundu-ta.
Ezer ez da ikusten lurrean
Erriko argi batzuek besterik...
Ixil... [illegible] degu gañean.

\+ + + +

Udaberriko
Gau-aldea:Zuk ematen didazu
Lo...lo...egiteko gogoa.
Ta maitatuaz illargi zurbilla
Ta izarrak...ortze eder osoa...
Gora ikartuaz,
Otoitz egiñaz,
Eguna iltzen dan lez,leunki,nai det il
Dedilla ne biotz gaxoa.
Ta suburutik-egun baretsutan-
Gora doan lez ke mordoa...
Nere soinetik igo dedilla¡arren!
Donokira,nere gogoa...

OCHELLURRETA.

ORBELA

Olerkiak 195? serikata

"Belarbeni" izenorde.

- Maita-opaši (olerkia)

A T S E K A B E A N

Atoz ene lagun anai Oinazea !
Zure beha negon atean gabero ...
Ar zazu nerean janari ta bero
Zuk eginen nauzu naizen baiño obea

Atoz arantzetan oteaz betea
Odoldu nazazun muñ-egin ta gero.
Zorionak nindun illumpetan ero
Zure suaz orain argizait barnea

Bear dut zure min ta zure arretzea
Zato .. ! Neri urbil nahi zaitut lagun
Eder baita zure mintzo aditzea

Goazen eskutik anai Oinazea ...
! Goitik igorria ote zaitut egun,
Atzenean dezadan Gorako bidea ?

Orbela - Mauzan

G A Z T E K E R I A

Zaartzeak esan zidan : " Egingo aut nere ! "
Ta nik ari : " Oa amendik Agure ! "
Gazte izan-eta ... egin nion parre.

Gau artan Eriotzak belarrira : " Mutil ! "
Izituz, erantzun nion : " Zer abil ? "
- " Zaartu nai ez ba'duk ... bearko aut il ! "

Joan zitzaidan erranez :
" ! Bizi nai ta zaartu nai ez ? "

Orbela

U S O A K ... !

Ego-aize gorri...
udazkenaren armas epela !
Usoa - !igeslari! -
dakartzu gurera
dabilkizula dantzan orbela

Etxalar ta Sara ...
Zuen arteko mugaren gezur !
Ez al zerate ba
Zugaitz baten egur ?
Aizkolarieri nago beldur !

Usoa badator
ipar aldetik ego aldera ...
Uso ! goitik ator !
Ez jeitxi behera ... !
nahiz miru-itxura bularrera.

Goitik abil-eta
egalak zabalik ortzi baitan ...
Izanen duk beha
norbeit lohietan
i galdu nahirik ... sarretan !
Sareetan

Uso -- edo gazte --

egalak zabalik atorrena ...

Ito nahi aute

sarpen barrena...

Egaz, airatu adi gorena !!

Orbela 2 Monzon.

J. Mouzonen -
oleiki bat

1947

O L E R K A R I A K .

Donapaleo'ko gazte bati
erantzuna.

Adiskide beŕi bat,ezagun gabea,
Napaŕa'n sortua zait,alai ta gaztea.
Letra bat egiña dit,gezur gabekoa,
goizean goiz artzen dan aize eder prexkoa...

"Zure bertsoak ditut ezagutu beŕi
-dio- ta nik ere nai izan olerkari...
Bañan ez dizut,yauna,bertze yakiterik
barneak egin didan iŕintzina baizik.

Oro zait ene Eŕian eder ta maitegai.
Eŕez iĥuntzen ba'naiz,utsak biur alai.
Ene biotz-ikarak nai nituzkela ager,
ezin yaiorik ditut ni baitan itz eder!

Egune z aitarekin irtetzen lanera.
Gauaz...ixilki nabil ikasten euskera.
Txistua yotzen dakit,eta igande garaiz
mendian artzaiekin dantzan ibiltzen naiz...

Ene Eŕia maite dut barne sakonaño
ta aren oñazea zait biotzean laño.
Nere inguruan oro nukela bertso-gai,
txorikumea nauzu ta abesten asi nai!"

Eta,biotz ikaraz,ari nik erantzun:
"Zorion! Alai zaite napar gazte lagun!
Eldua zaizun oyu atean yotzera,
goi-etoŕia dezu! Olerkari zera!

Bertsoak nola egin? Edoĥoiz,nolanai...
Zeinbat lore bezala sortuko dira bai.
Sartu zaite zu baitan. Landu zazu luŕa,
Goikoari utzirik emaitzen ardura.

Zaindu zure landara,ximeldu ez dedin,
t'eŕuzki emaiozu,edariz,eder-min.
Zure gorputza,gazte,loian ez erabil,
eŝnai duzun gogoa lotsaz ez dedin il.

Ituŕiak ur eder,biotzak bertsoa,
nik olerkia maite garbi ta prexkoa...
Ez bainaiz olerkitan iñun ikasia,
kantari artzen diet bertsoei neuŕia.

Egizko olerkariak ez bear,-ez uste!-
begi kizkur itxiak eta iĥea luze,
izkeraz aŕoputza,yakinkeri usain,
iñor atzeman ezik norberarentzat lain..!

Ez.Gure Eŕiak beâr ditun olerkari,
maitasun barne suak egin ditzala aundi.
Aiek bear bai dute gure Eŕi goratu
ta Amaren magalera seme oro batu.

Gurerat olerkari malko-merkerik ez!
—Eŕiak ez baitira yasotzen negaŕez—
Nonai bizi dan Eder arturik maitegai,
izan zaite,ene lagun,olerkari alai.

Ixilik egin zazu gauean negaŕa
-lùŕari euri oŕek ematen indaŕa-
gogoa xirimiriz busti izanda gero,
egiozu Yaunari otoitza goizero.

Ta zoaz aitarekin kantari lanera
—izardietan,lagun,edeŕago zera—
Ara amen olerki bat: Lan egin ondoren
zein eder aitarekin yatorduz atseden!

Iĺuntziz,etxeratuz,bakean afari.
Anai-aŕebak maian ta ama serbitzari...
Pozik ez artzekotan etxeko maiari,
ez/zaitut,ene lagun,egizko olerkari.

Zuk diozuna eder,"Oro zait bertsoa":
Neguetako laño ta udazken-egoa,
atso zaŕaren ipuin,auŕaren yostaldi,
etxe barneko giro ta artzaien dantzaldi...

Euskal neska garbien begi beltz eta urdin,
—ezpañak odoletan eta soiñak arin—
aizkolarien indar,usoen igaro,
Urbi'ko gazna zaŕa ta napartar arno...

Nik ere maite dizut ortzian izaŕa...
—sasi-olerkarien beti gai bakaŕa!—
Egizko olerkariak edertu dezala
gure eguneroko lan eŕikoi ta apala...

Zato,lagun,enekin.Goaz! Gertu zaite!
Neure inguru nai ditut olerkari gazte.
Goaz eŕirik eŕi txistu doñuakin,
su-gartu arazitzen euskal maitasun min!

Gertuan bai ditugu seaska ta iĺobi
—txiḿistaren argia,gizonaren zori—
oraingotzat ar zagun asaben lengoa,
izanaren oroitzez landuaz geroa.

Yun ta datozenekin izan gaitezen bat,
eŕiaren sustraiak artu itzagun gaitzat,
Euskaleŕi zaaŕaren betiko mintzoa
guk azaldu dezagun egiñik bertsoa...!

.....

Gauaz asia nauzu ta...leioan egun.
Oartzeke luzatu bai zait ene erantzun.
Donibane'rat ia noiz zatozen,lagun,
alkar ezagutuaz bazkaldu dezagun!

Donibane Lohitzu'tik
1947'g, Udazkenean.

Monzon-Olaso'neko Telespor

T x o r ı a k u d a b e r r i a n

Txorrotxio pittirri
Txoria kantari
Oyuka ludiari
Udaberri-berri

Tantai gañean
Orra txoria
Goiz nabaitzean
Egun sentia
A-sten da txioka
Indar guziaz

Mendi artetik
Euzkiak kiriki
Bere izpiak
Igor emeki
Txo-txi txorıak
Poliki-poliki

Txioka astindu
Bere egoak
Bularko lumak
Aats mokoak
Esna ta garbi...
Ez dago loak

Egan yoan da
Yanari billa
Ernai maitea
Zegon urbilla
Atoz nerekin
Nik badut pilla

.....
.....
...

Txorrotxio pikuli
Txoritxoak maiteki
¡Oi! laister umiak
Izanen kabiak.

Txantxangorri

Abestu liteke "Soriekua utzi geroz"
bezela.

Maitasun Garbia

Goiz sentian nuen ikusi
Leyo batean izar bat
Esan nion begui eder
Zatoz neregana pixkat
Biotza nik gorde-gorderik
Aspalditikan zuretzat
Oso-osoa dut oraindik
? Zurea ez alda neretzat ?

Esan zidan gorriturik
Zera eder eta gazte
Ez nuen nik neretzako
Orrelakorikan uste
Zure itzak barren guztia
Era bat mugitu diate
Zu gabe aurrerakoan
Nola bizi nere maite ?

Ori pozen pozgarria
Zure itzak naute eman
Gaur bai esan ditekela
Nagola ni zeruetan
Egia arren,arren egia
Egia eta ziñetan
Aita amari adieraztera
Nijoa ni seguidetan

Gezurrik nik oraindikan
Beterik Jaunen legea
Ez det esan,esango ere
Irukizazu fedea
Artuko det alai ta pozik
Amodiaren katea
A ikarrekin Jarrai bear dogu
Zeruratzeko bidea

Goiz alaya zan etorri
Iuza ema-na kumplitzeko
Bere gogo ta gorputzak
Betirako alkartzeko
Eztai Santu edergarriaz
Amodioa bizitzeko
Udaberri zoragarria
Lore xamur biurtzeko

Orrelaxe garbi-garbi
Euskaldunen arbasoa-k
Maite oi ziren beti-beti
Aiek bai gurasoak !
Zerurako lurreratuaz
Aingeruzko aurtxoak
Irakas onak emanaz
Fedeań ziran indartsuak

Fedea

N e r e a r t a l d e a

Ardi txuriak
Garbi-garbiak
Mendi-mendian
Alarazian

Be´ka ta be´ka
Beti opaka
Bildots txikiak
Maite-maitiak

Artzaina zintzo
Txirulaz mintzo
Egun sentian
Borda ertzian

Axuri txiki
Urbil eztiki
Larretik gora
Bere ondora

Ora zaunkari
Erne ta larri
! A-lbaan beti ! (Alboan beti)
Zerbait du senti

Aidean doa
Gora arranoa
Begiak zorrotz
Erpeak zipotz

Otso maltzurra
Ardi lapurra
Gogor biotza
Ta,zorrotz ortza

Otsoa urbil
Arranoa amil
Ardi gaxoak
Danak eroak

Nola ta ala
Naia txabola
Artzaia sukoi
Erten ilkoi

Unaia zintzo
Suizkiliuaz mintzo ....
Arranoa igesi
Otsoa illetsi

Txakurrak zaunka
Ardiak be´ka
Gora otoia
Nere artzaia

~~xxxxx~~ Ardi txuriak
Garbi-garbiak
Mendi-mendian
Pake-pakian..... Alarazian.

UNA I

E U S K E R A azkenekotan

! Euskaldunak ! Arren urbildu nigana
Estu ta larri dabil nere biotza
! Ga-xorik nago ! Na-baitzen dut eriotza
Nere oyuak,indar gutxi... ! Au lana !
Gose egarriz,!Ai!,iltzera zure Ama.....
Zuek entzungor,jolasetan.! Zer lotsa!
Laister naiz gelditzen betiko il-otza
Il-ko naiz,baña entzun nere esana.
Bizi nindeteke.Nere Osasuna
galdua dago,auldua dut odola.
Oraindik senti bazera euskalduna
Nere izanak zerbait badizu ajola
Eman nere biziari osagarria
Euskal-Erri biurtuz Aberri guzia.

Eleketari

Iratzeder

H A I T Z - P E A...

Haitz-ondo batem itzala , zeruaren zabala ...
Eta hara berehala eskual-kantuz nagola !

MUNdu-bidetAn ardura ezindua nabila ;
Bilatzem dut holakotam haitz-pe baten itzala :
Eta hor , zerurat beha , berritzen zit odola ,
Eskual-lurren bihotzeam sartzen banintz bezala .

Eskual-Herria zait niri nun-nahiko haitz-pea :
Hor dut hurrupatzen eskual-lurren bakea .
Haitz-pek arintzen , eskualtzen , pizten dute barnea
Eta , elgarri besarka , biltzen eskual-jendea .

Haitz-ondo baten itzala , zeruaren zabala...
Eta hara berehala eskual-kantuz nagola !

Itsas-aldeko marruma , ihurzuri chimichta ,
Iratze-gorri zirimol , Haitz-ondo bat chut chuta ...
Zatozte , eskual-anaiak , dugun dantza ta kanta
Eta , munduaren maitez , elgar mintza ta maita .

Eskual-Herria , nun-nahi , bihotzean dugula
Eta usu ezpainetan "Gernikako Arbola" .
Eskual-seme bakotchak bi Herri dituela :
Lehenik Eskual-Herria eta... Mundu-zabala .

Haitz-ondo baten baten itzala , zeruaren zabala...
Eta hara berehala eskual-kantuz nagola !

.....

Kurutzea bezein zabal zauden haitz saindua ,
Erho guziez hurrupa eskual-lurrarem sua ;
Eta , hedoieri nausi , goiti altcha burua ,
Bake-eraile zabalduz munduz-mundu Fruitua ...

1 /10 /49

Itsasorro

2

B I M U T T I K O . . . :

Bi muttiko ttiki-ttiki
Dena begi,dena irri...
Bi muttiko so egoiki
Etchekoen choragarri...

Heiagoraka zauden bi biak.
Ezpain-matelak ñoñoz bustiak:
Ni agertzean,ni ikustean
Harritu zaizkit bi biak

Bi muttiko ttiki-ttiki
Matel chabal,matel churi...
Bi muttiko amultsuki
Pottka eta ttinka ari.

Heien Aingeru hegal-zabala
Hara heien zain irriz dagola:
Ai baloazi,balire bizi
Harek amestu bezala.

Bi muttiko ttiki-ttiki
Dena begi,dena irri,
Biziari so egoiki
Zeru-lurren choragarri.

2-10-48
Bi ilhobañoak ikusirik.

Itsasorro

Aita BASTRES Sempertarrari .

JAINKO - BILARI .

Lazkanon dago, Aralar zolan, eskual-lurrean etzana,
Eskual-ametsik den zabalena asmatu duen gizona ...
Nork daki orai Eskual-Herrian, nork daki haren izena ?

. . . . . .

Ez othe duk ba nehoiz aditu,Eskual-Herriko jendea,
Nundik hoin bero dukan arima, nundik hoin azkar fedea,
Nundik ez zaikan hiri nausitu oraiko gezur-mendea ?

Hain laket baituk supazterretan zer nahi kondan aitzea,
Ez othe duk ba sutzen ikusi chaharren begitartea
Gazter aiphatuz gizon gaitz horren ihurzurizko elhea ?

Haren mintzoak, haren besoak, haren behako kartsuak
Frangotan ditek ikhararazi hire elizen murruak,
Nola galernak oihan kaskoak, ukur-araziz buruak ...

Entzun gaupetik, eskual-jendea, entzun gaur hire Arima :
Zerk othe hola traberi nausi mendetan barna herama ?
Entzun, han, Aiten boz eta kharrak iduri itsas-marruma ...

Entzun Axular eta erretor saindu guzien ostea
Eta gain hautan moldatu hauen mendez mendeko jendea,
Entzun gaupetik su-deihadarka Bastidarreko Semea :

"Eskual-Herriko gazte beroak, eskual-bihotzek sortuak,
Mendi harrokak bezein thematsu, tirainak bezein zaluak,
Argi hasteko hedoi gorriak bezein arrai ta kartsuak ,

Eskual-Herriko gazte maiteak, eskual-lurraren lorea,
Nundik duzue zuen barnean duzuen urhe gosea,
Nundik amestu, diru egarriz, herritik kanpo joatea ?

Hirirat edo itsasoz harat bihotza amets bazoazte .
Bazoazte eta zenbat, ondikotz ! han ilhun hilen zarezte ,
Oro galdurik : diru, zorion, gizontasun ta sinheste ...

Ai, urrutirat so dauden Orhi, Arthaburu ta Larrunak
Eta gazteak jada milaka ereman itsas-uhainak
Mintza balaite guri salatuz zer egin diren geihenak .

Zenbat amaso dauden aiduru ... Ai balakite gaichoek !
Zertako bada joan zaizkiote etcheko-seme zoro hek,
Beretu nahiz urhe diotęn ifernu pindar horiek ?

.....

Eskual-Herriko gazte maiteak, Jaunak dena suz eginak,
Ene ahotik entzun auhenez eskual-lurraren auhenak,
Beha, ithurri eta ibaika, zer nigarrak doazkonak ...

Jaunak barnea egin dautzute itsas-mendi hauk bezala
Eta hara nun mundu guzian deus zuetaz gai ez dela .
Zerk ase othe ala nork bethe zuen bihotzen zabala ?

. . . .

" Zatozte ! Nik dut, bai nik dut egun zuen barnea aseko .
Nik dautzuetet bila zohazten zorion hartaz betheko .
Eskuko daukat zuen Ametsa, huna mendi hauk lekuko .

Zatozte eta ene ondotik igan eskual-gain hartara .
Goazen denak bat, airos harturik aitzurra eta aizkora :
Khen lur hortarik harri, laparrak, zuhaitz erroak athera .

Zatozte kantuz, zatozte bozik, ekhar zuen su guzia,
Hor, denak anai, aurki dezagun nihun ez daiten loria
Eta toki hau deituko dute : Eskualdun zeru-mendia !

Zuen odolak jitez behar du borroka eta gudua :
Nahiko gudu izanen dugu, garhaituz gure burua
Eta gain huni tirain-orroaz oldartuko den mundua .

Zuen gogoak, ezin asea, ez du jasaiten mugarik :
Lurreko itzal haukien orde, huna ba huna nasairik
Ezin amestu goiko izaite neurri-gabeko hetarik .

Igan ba eta, besoz-beso hel, lanhoez harat behaka,
Hor asetzeko, hor zoratzeko gogo-ta bihotz betheka,
Lurkeriz arin, gutarik libro, hel gaiten eta hor finka,

Lurra aitzurtuz, elgar maitatuz, goian alhatuz gogoa,
Zorion sutan aurki dezagun aurki gozoen gozoa :
Diren guzien ithurburu den bethiereko Jainkoa .

. . . . . .

" Oi Belokeko gain dohatsua, nehork ez jakin gainttoa,
Mendiak oro baino gorago duzu gaurgoiti kaskoa,
Zure larrerat urtu delakotz Jaun Goikoaren Gogoa .

Zure alhorren zirrimarreri urrundik beha egoki,
Laborariek jakinen dute nolaz lan egin jainkozki
Eta zer gisaz beren lurretan bai zeru eta boz aurki .

Gau eta egun joanen baitzaitzu zerurat eskual-othoitza,
Zu zare orai hortchet izanen eskual-lurraren bihotza,
Zu mendez-mende eskual-arima zainduko duen arkaitza .

Hor, eskual-mugan geldi-araziz iphar-aize hilgarria,
Ez duzu hemen sartzen utziko gezurra eta lohia,
Zuk, zerurako galernen pean gizalde hunen argia .

Agur, Beloke, Eskual-Herriko Golgotha-mendi saindua,
Zenbatek dute zutan eginen bihotz-eskaintza kartsua,
Zutan jasanen, zorion-pleinuz, amodiozko Pairua .

Kristoren pare, Kristoren maitez, eskual-bihotzik maitenak,
Behin bethiko izaite osoz Jainko baitan bat eginak,
Kantuz dituzte lurreratuko gauez-gau zeru-uhainak .

Agur, Beloke gain dohatsua, fede histuen pizgarri,
Osteka zaitzu jendea jinen khar eta bakez egarri,
Zuri gaindika baitoakizu goiko Bizia ithurri .

Zure kaskorat iganak eta zure uretan aseak
Biziko dire hiltzen ikusiz erresumak ta mendeak
Eta suntsitzen irrika zauden mundutar fedegabeak .

Diren guziak Jaunak garrazki suaz frogatu ondoan,
Hek, oso garbi, mundu guzien hautsak, erhautsak oinpean,
Jaun-Goikoraino iganen dire zorion oso-osoan,
Urhezko hedoi arthalden pare iduzkiaren jitea; ...

. . . . .

Goraipha-zue, itsas mendiak eta zelaiak,
goraipha-zue Jainkoa !
Goraipha-zue, ithurburuak eta ibaiak,
goraipha-zue Jainkoa !
Goraipha-zue, izar, iduzki eta hedoiak,
goraipha-zue Jainkoa !
Bai eta gorets eta goraltcha bethi, orotan
eta menderen mendetan ...

Ez ginen eta ... — zuri, Jainkoa, ospe, goresmen, esker ta kantu ! —
Hara nun garen Eskual-Lurretik goi-argiraino loratu ...
Ez ginen eta ... — zuri, Jainkoa, ospe, goresmen, esker ta kantu ! —
Hara nun garen bethi-bethiko zuri so behar zoratu ...

Goraipha-zue, zeruak eta zeruko bazter zoratzaileak,
goraipha-zue Jainkoa !
Goraipha-zue, denez gabetuz Mundu berrirat igan jendeak,
goraipha-zue Jainkoa !
Goraipha-zue, hedoiez-hedoi lorios heldu eskualdun Jainko Semeak,
goraipha-zue, goraipha-zagun Jainkoa !
Bai eta gorets eta goraltcha bethi, orotan
eta menderen mendetan !

x
x x

Lazkanon dago, Aralar zolan, eskual-lurrean etzana,
Bi zurtchurien artean eta ibai hegian emana,
Eskual-ametsik den zabalena asmatu duen gizona .

. . . . . .

Hartu nau tanpez, orai lau urthe, haren eskualdun-sukharrak :
Joan naiz gainez-gain ea nun ziren sutu zituen bazterrak,
Ea nola pitz herra-galernak handik ufatu su-garrak .

Igan naiz eta gain saindu hortan, nuen lehiaz betheak,
Bihotza amets, begia bero, aurkitu ditut gazteak
Othoitz-ameska aitzurtzen ari, nola lehengo fraideak .

Zeru-min beraz minez daudenen batetaratze gozoa !...
Denek bat lantuz lur zerutu hoik eta othoiztuz Jainkoa
Kartsuki dugu bila-bilatzen Aintzinekoen Gogoa .

Batek pil-pil bat, bertzeak hats bat, bertzeak aldiz pindarrak,
Chorta-chortaka biltzen ditugu hek utzi amets ondarrak .
Ai ! baginitu hauen pizgarri Lazkanon dauden hezurrak !

Oi Lazkanoko fraide anaiak, idek ba hobi ziloa
Eta sistuka, zirimolaka iduri aize-hegoa
Mendiz handitik ethor bekigu, ethor haren hats beroa .

Sistu galernan etchen barnea daldararaziz dohala .
Zelaiez-zelai furfuriaka, zuhaitz ostoak bezala,
Gazte bihotzak har, susta eta hunat airaraz ditzala .

Zirimirolan, furfurifian eta gaineri fereka,
Oro sustatuz iragan beza zonbeit garaztar erreka;
Orro burrunban hel bekigu hel bildu su-gaier ufaka ;

Eta, gurekin kantuz jeikirik zelaitar jende guzia,
Eskual-Lurretik izarretarat —hau loriaren loria ! —
Gauez-gau zaiku berritz iganen goiko suaren Argia,
Eskual zainetan burrustan sartuz bethiereko bizia ...

. . . . . .

Oi Jainko-bilarien sugar zoraleak,
Igan, igan arinki, erre ilhunbeak .
Guziak argi ditzan zeruko bakeak
Igan, igan ~~arinki~~ pitz eskual-jendeak .
airoski,

Bazter guzietarik zueri begira
Zorion-dantzan joaki izarren aldera,
Begiak oro beite boz eta lillura
Urhetik diten libra, lohitik athera .

Dantza-mantzari altcha zuen su besoak,
Zirimirolan eskain eskual-khe gozoak ,
Eskual-jende guzien arima beroak
Noizbeit hurrupa ditzan zeruko Jainkoak .

Zirimiro mirolan hau dantza ! hau boza !
Aize-hego gauetan mendez-mende dantza
Eta zueri beha lurrak ikus beza
Gain huntan daitekela Jaun-Goikoa goza .

Oi fraide ichilaren bizitze gozoa,
Jadanik baitu harek gozatzen Jainkoa !
Bihotza libro eta zeruan gogoa,
Lurra bozik aitzurtuz zeru alde doa .

Amodioz barnea hain baitu zabala
Eta mugarik gabe Jainkoak bezala,
Jaunarekin mundua harek derabila
Othoitzean eginez bere lan ichila .

Oi berpiztu gain hunen lehen Sutzailea,
Zauden zeru hartarik dohatsurik beha :
Hel-araz Jainkoraino gure bihotz-khea,
Oso dadin Jainkora lurreko jendea .

=====

14/2/46

Jtzaldea

Herri minez ...

GANICH IRATZEDER &
GABRIEL LERCHUNDI .

Largement.
et
Très librement

Her-ri mi- nez na- go Ka-li-for- ni- an, Galtza palto-

ak zi- lo, ni-gar-ra be-gi- an ... Ai! Ai! e-gon ba- nintz

Es-kual Her-ri- an, E-ne e-tche tti-ki- an nindau-ke lo-ri- an ...

Ai! Ai! e-gon ba- nintz Eskual Her- ri- an !...

Plus récitatif.

I. Ho-goi ta lau urthe-tan herri-tik joan nintzen, Us-tez e- ta fortu-

Expressif.

na a-tchema-nen nu- en... Ai-ta-mak, ai! zerta- ko u- tzi nindu-zu-

toujours en pleine émotion ...

en Her-ri go- cho horta-rik er-gel- ki ur-run-tzen ?

quasi f.

Ba-zi-na-ki- te o- rai ni zer plantan nai-zen !... HERRI MINEZ...

/.....

2) Mila behatzi ehun eta hamabian,
Hamar lagun joan ginen airoski untzian .
Hetarik hiru artzain, bertze lau hirian
Miseria gorrian daude aspaldian :
Fortunaz jabetzeko ez dire abian .

3) Bi zaizkigu bakarrik bi diruz hanpatu
Eta dena espantu sor-herrian sartu .
Bai, bai sosdun horiek badute espantu,
Bertzeak aldiz daude ichil eta mutu ...
Bainan egun behar dut egia salatu .

4) Oi Gazteak ! joan aintzin, zaudezte karkulan,
Bazter orotan baita bihotzmin eta lan ;
Ez uste, ez, jendea ainitz sosekilan
Bethi ainitz zorion gozatuz dabilan .
Maiz sos bezenbat pena sortzen da sakelan .

5) Herritik urrun eta mila dolar baino
Hamar sos hobe eta ez amerikano .
Egon, egon herrian ahal duzueno .
Ni hemen nago triste, hemen hiltzeraino :
Nolaz ager ba pobre ta amerikano ?...

6) Aitatchik erranean izan banu fede :
Ai, itsasoz joan orde egin banintz fraide !
Bizi huntan jasana ez nuke debalde
Eta erran nezake bozik zeru alde :
Nik bildu kapitalak segurean daude .

7) Haukien emailea Tturringo semea,
Kalifornian dena nigarrez bethea :
Adio etchekoak, adio etchea !
Ez egon ez geihago zuen Chan-en beha ...
Segur banu bederen zeruan sartzea !..

Ganich IRATZEDER (1947)

Gerlan hil baten
haurñoari

Zure aitatto ...

Zato nere altzorat, hupa, Maite, hupa !
Eman ottori pa
Eta dugun aitatto elgarrekin aipha .

Maite begi zabala dena aita begi ,
Zuk bezala zituen bero eta ilhun ,
Amets gaitzez baitzaukan bihotza bethegi .

Hurbil zakizkit, Maite, dutan doi bat entzun
Surik baden zu baitan pil pil ari denik ,
Bere amets pindarrik utzi othe dautzun .

Zato nere altzorat, hupa, Maite, hupa !
Eman ottori pa
Eta dugun aitatto elgarrekin aipha .

Ez baitut nik ezautu ~~nik~~ nihor hoin kartsurik
~~Hoin kartsurik ez baitut nihor ezautu nik,~~
Piztuko zautzun harek bihozño hortan su ,
Zerbeit kantuño bero ~~ikasiz jadanik~~ .
ja erakutsirik

Ai, hor balitz, hor balitz zoin laiten dohatsu,
Bere alabañoa besotan harturik
Mathel irritsu hoier ematea musu !

Zato nere altzorat, hupa, Maite, hupa !
Eman ottori pa
Eta dugun aitatto elgarrekin aipha .

.....

Ohakoan churrungan lo zinaudalarik ,
Bi urthe gaur ukurtuz pott eman dautzula ...
Bi urthe gaur etchetik gan dela tristerik ...

Gan da eta han dago izarrak bezala,
Bizia eskainirik,bethikotz dirdiran ,
Maite maiteño hunen zaintzale ichila ...

Zato nere altzorat, hupa, Maite, hupa !
Aitattori bezala eman Ottori pa !

9/6/42 .

~~Canich~~ IRATZEDER .

=======

Fernando Artola 'Bordari'

"Ikusten duzu goizean" bezela
abestutzeko.

NERE ETXEKO ATEA

Nere etxeko atea
Gaztain egurrez betea
Mimarriz daka ertzea
Erdi parean ta goi aldetik
Ipiñi det gurutzea
Ez da aski sinistea
Eman bear da erakustea
Bai daukagula fedea

Sapaillo gora dijoa
Alboko matsa ondoa
Aitonak landatukoa
Ate azpian beti da guiro
Eguzkia da galdua
Itzal atseginin lekua
Kerizpe babes goxua
Aterpe txit amultsua

Alartzean ixeria
Dago amoña maitia
Altsoan du aur neria
Kanta-kantari,goxo ta xamur
Badu ortako grazia
Ez da sekula geldia
Arturik orratz ta aria
Otoituz Agur-Maria

Ateak du oroipena
Ikaraz gorputza dena
Pentsa ta jartzen nauena
'Eximist maitzurrak nere aita erail
Itai zorrozten zegoena
Guizona oraindik lerdena
Pagoa bezin zuzena
Artu nuan nik bai pena

AMODIO

Ate zabala aundia
Ezagutzen du sendia
Lekuko maitagarria
Negar malkoak,zaizkit ixurtzen
Aski baitut oroitzia
Biotz beguiz ikustea
Nere aiten partitzia
Bai zala gauza tristia

Festa burua denian
Ate zar onen aurrian
Danok alkar gaudenian
Nere eskerrak,gora jasuaz
Eskatzen det otoitzean
Pakea nere sendian
Zorion betea a-uzuan
Alkar guziak zeruan

Armetara ni gaztetan
Urte bi ! ai ! kuarteletan
Ogei-emeretzi urtetan
Etxeko a-tea,amaika aldiz
Nere boitz pentsaketan
Malkoak bi beguietan
Diot egiz ta ziñetan
Ezin aztu iñoletan

Gende pobrea ugari
Ate aurrian eskari
Dirua edo janari
Esku zabalez,nere andreak
Limosnatxua danori
Maitetasunez opari
Ogia eta edari
Ez du ukatzen iñori

Ate aurrian negarrez
Ez naiz astuko ni errez
Nola esan ziraffen baietz
Andre ona dut,xamur ta eztia
Beti dago irri-parrez
Etxe laguntza bearrez
Beti izerdi ta nekez
Ez da pagatutzen urrez

Urbiltzean Olentzero
Ate aurrian urtero
Gazte alayak pozkiro
Urte zarreko pitura onak
Maite ditugu zearo
Abesti kanta ta oro
Damalogun odol bero
Galduko ez dira onuzkero

Margoztu ditue bertsuakin
Ate zar maite onekin

Amar irudi imagin

Atea dala,goguan artu
Arreta eta griñakin
Bere sartu aterakin
Gaztain,intxaurra edo sapin
Etxe guztien erreguin.

Bordari

215-170

" A R N O ' P E "

IRU EKITALDIKO ANTZERKIA

("Markesaren Alaba" bertsoetatik artutako gaya)

Arno´pean itxasoari muxuka arkitzen dan Mutriku nere jayoteŕiari biotz-biotzez.

Arkotxa eta Martija tar J.Andoni´k

(»ATXUKALE»)

Ondaŕua´n 1.949 gko.Azaroa´ren 10´an

» A R N O-P E »

IRU EKITALDIKO ANTZERKIA

» Markesaren alaba» bertsuetatik artutako gaya

" A R N O - P E "

IRU EKITALDIKO ANTZERKIA

EGILEAK

JUANITA, (Markes alaba)	2o	Urte
MARKESA	5o	"
IDURE (Alarguna)	3o	"
AMETSANE (Neskamea)	3o	"
ANTXON (Arantzalea)	25	"
BROKEL (Etxe jabea)	4o	"
APAIZA	25	"
ATXUKALE (Arantzalea)	45	"

" ARNÓPE "

LENENGO EKITALDIA

(Antzeztokiak euskaldun aŕantzalien sukaldea adierazten du. Ezker-eskui aldetan ateak dituala.Atzean,erdian,kalerako atea.Onen ezker aldean leyoa. Eskuian su-lekua ta bere inguruan,len oitutzen ziran ontzi ta tœnak.Ormetatil zintzilik,itxasorako, tretza,traol,tretxak eta onen pitxetatik zintzilik txibi-korañak dirala.Mutrikuko " Jesús Nazareno´aren laukia ere bai. Onen aurean,mai gañean, argizeya piztuta.Iru aulki ta abar.)

Lenengo ageŕaldia

IDURE

(Geldika-geldika zapia irikitzen asiaz batera entzungo dira: trumoi,tximista ta aize bolarak.Baita ere komentuko kanpai ta abestiak uŕutitik balemtozke bezela. Iduŕe beltzea jantzia besoak zabal-zabalik,gurutzean, belaunikо "Jesús Nazareno´aren aurean ixil-ixilikagertzen da. Entzungo diran abesti ta otoitzak:

Jesu,dulcis memoria,Dans vera cordis gaudia:
Sed super mel,et omnia, Ejus dulcis presentia.
"

Nil canitur suavius,Nil auditur jucundius
Nil congitatur dulcius,Quam Jesus Dei Filius.

Jesu,spes penitentibus,Quam pius es pretentibus,
Quam bonus te quaerentibus,Sed quid invenientibus?

(Ondoren Salve eŕesatua." Salve Regina" ..... (Gero -)

" Jaungoiko dontsua
Jaungoiko indartzua
Jaungoiko illezkoŕa

Gaitz guzietatik
aldendu gaitzuz,Jauna."

(Une ontan ekaitz aldia gutzitzen dua. Jaŕaitzen du beste abesti onek)

" Eŕukitu zaite jauna
Eŕukitu zaitez gutzaz
beti jauna.
Barkatu egiozu zure eŕiari(bis)
Damu degu,Jauna. "

Iduŕe.- (Jaungoiko dontsua abestiarekin batera otoitzean biotz-biotzez asten da.) " Jaungoiko dontsua,jaungoiko indartzua,Jaungoiko

(Jaŕaitzen du)

illezkoŕa.Gaitz guzietatik aldendu gaizuz jauna.Aldendu. Gaizkatu Jauna.Gaizkatu,or,ekaitz bildurgaŕi ortan itxaso erdian,galdu goŕian daudezenen biziak.Gaizkatu,batez ere,bereh anima gaxoak gaur kontu eman bear badute.Guzia al dezun Nazaret´eko Jesús maite-maite ori, entzun,bein eta beŕiz, zure odolaz erositako obenlari onen otoitza.Entzun,baita ere, eten gabe kanpai joka ta abesti otoitzez dauzkazunen zure monjatxoen ezkari xamaurák.Baretu,Jauna,baretu,komeni bada Kantaur i itxaso oŕoitzua lenago Jenesaret´go itxasoa zure esanetara baretu zan bezela."Eskatu ta emango zaizu" esan ziguzun.Biotz-biotzez eskatzen dizut bada,Jauna,sartu zaitezala " Xatuŕ"en txalopatxoan bertako lemari. Ez,gau guzian alpeŕik aŕantzan igaro-ta zurekin beŕiz aŕai billa joateko.Ez.Ortarako ez.Kayera,zuzen-zuzen,kayera ekartzekotan baizik.Gutzaz eŕukitu,Jauna.Eŕukitu sendi eŕukaŕi onetzaz.Eŕukitu .....

Bigaŕen ageŕaldia

IDUŔE TA AMETSANE

(Kaleko atetik Ametsane agertzen da eŕosario,liburu ta burastalkia eskuetan dituala. Iduŕen azkenengo itzak entzuten ditu bereakaz moztuaz sukaldera sartzen da.)

Ametsane.- Eŕukitu da,bai.
Iduŕe .-(Aŕituta altzatuaz) Zer diozu?
Ametsane.- Entzun dezuna.
Iduŕe .- Baretu dala?
Ametsane.- Bai,eta Antxon da kayera sartu dirala.
Iduŕe .- Sartu?
Ametsane.- Sartu,bai,sartu.Antxon laixter da emen,etxean.
Iduŕe .- Jaungoiko aundia! Sinistu litekenik ere..
Ametsane.- Sinistu zazu,sinistu,Iduŕe gajoa.Ondo ezagutzen det " Xatur"en txalopa.
Iduŕe .- Ala bedi.
Ametsane.- Egun bat ezkero txalopa oŕen itxas joan-etoŕisk ikusi ~~edo~~ jakin gabe ez dira izaten gurean.Bere aize oyalean kazkarekin margostutako orein biribilla ta musul gañeko margo zuri-urdiñak ondo artuak dazkaguz. Kaira sartzen ikusi detanean,zutzaz oroitu naiz ta albiste au ematera etoŕi nazu.
Iduŕe .- Eskeŕik-asko,Ametsane.
Ametsane.- Neri ez eskeŕak.Or,lenago otoitzean egon zeran Nazaretéeko Jesus´i baizik.Berari eskeŕak.Bera~~-~~ izandalako zure eskari biotz-biotzekoa entzun eta lagundu dizuna. Eskeŕak Berari.
Iduŕe .- Bai,eskeŕak Jesus Nazaret´ekoari ta belaunikatu gaitezen Bere~~-~~ aurean.
Ametsane.- Poz-pozik ala ere.
(Biak belaunikatzen dira)
Iduŕe .- Eskeŕak damazkitzut,Jauna,esker-ugari - ugariak,bein eta beŕiz egin dizkidatzun mesede aundiakatik.Agertu nai nizkitzu nik nere baruan ditudan poz esker eman naya;baña nere mingain au motel,ezereza gelditzen da.Oregatik,ene Jesus on ori,sartu nere biotzean eta artu bertatik geyena maite dezuna,esker guzi-guzien ordaintzat,lendik zurea dana.
(Aita gurea,Agur Maria ta Gloria eŕezatuko dute bien arte)

(Jaŕaitzen du)

(Aulkietan exeriaz)

Ametsane.- Ederki,Iduŕe.Banekian lenagotik ere Jesus Nazaret´ekoa maite-mai te zenutela,baña gaurgoizean ikusi dedana etzait iñoiz ere aztuko.

Iduŕe .- Bera ddegu eŕi guziaren Lemalaririk onena.

Ametsane.- Gaurkoan,beintzat,azaldu dizute bere eŕuki ta esku altsua.Nork esan,une batean,itxaso ortatik gizon biziak irtengo ziranik?

Iduŕe .- Egia Orixe.

Ametsane.- Ezin zezakean Jesus´ek entzun gor egin Arnopetaŕen otoitz beroai. Laixter nabaitu da Bere inguruan kertakari ikusgaŕia.

Iduŕe .- Zer gertatu da?

Ametsane.- Eztakit nola bururatu diran.Nazaret´eko Jesus´en irudia ta Ama Deketakoarena eliz atarira eraman dituzte.Ikustekoa zan bi irudiak itxas aurean,ara begira,jendearen abesti-otoitz ta negar zotin artean.

Iduŕe .- Bayetz esan leike.

Ametsane.- Geyago oraindik.Ama Neketakoaren irudia Nazaret´ekoaren aurean jaŕi diote ta Zirartegiko apaiz gazteak guzion ordez Amak bere Semeari bezela eskaria egiten.Aŕia ere biguntzekoa zan.

Iduŕe .- Ala izan bear.Goikoetxea jaunaren itzaldia entzutekoa izango zan benetan.

Ametsane.- Beste gauz bat ere gartatu da. Irudien aurean jaŕi dizkieten kandela piztutakoak itzali gabe iraun dute denbora guzian naizta aizeak bazter guziak eraman beaŕik izan.

Iduŕe .- Lenago ere Nazaret´eko Jesus´ek badakit oŕen beste egiten.Aŕantzaleok Berari diogun maitasunak naikoa esatendu.

Ametsane.- Esanen dute eztala iñoiz galdu itxasoan Arnopeko aŕantzalerik,au da Nazaret´ekoaren kanpaya joten asten danetik.Egia al da?

Iduŕe .- Egia,bai,egi-egia. Arnopeko aŕantzaleak ito izan dira bat baño geyago.Oraidik bi urte eztirala Itziar´én txlopa bere 21 lagunekin galdu zan.Ayetan bat, nere senaŕa,baña orduan etzan kanpairik jo edo beranduegi zan kanpai jotzea agindu zutenerako.

Ametsane.- Orduan zuk zure senaŕa itxasoan galdua dezu?

Iduŕe .- Bai,gure Jaungoiko onak ala naiko zuan eta ortxen,diotenez,Santa Clara ta Santa Agata bitartean galdu ziran,etxeko atarian,esaterako.

Ametsane.- Eta ito ta gero beren gorputzak azaldu al ziran?

Iduŕe .- Ez.Makiñabat obeagoa izango zan azaldu ta naiz itoak izan etxera ekaŕi baziguzen,baña etziguten ekaŕi ta ezin etsi det,norbait ate ondora badator bera ikusi beardetala iduritzen zait beti.

Ametsane.- Zure aurtxoak etzuak ezagutoko,noski?

Iduŕe .- Ez,bi urte besterik etzituan eta..

Ametsane.- Ume zurtz gaxoa!

Irugaŕen ageraldia

IDURE,AMETSANE TA ATXUKALE

Atxukale.- Egun on! (Ate ondotik baña itzul egitea asten da,lotzatua.)

Iduŕe .- Baita iri ere.(Ikustean Atxukale itzul egiten)Nora ua,mutil? Zeren bildur aiz? Ezagu jango.Ez diakagu gozerik.

Atxukale.- (Sartuaz beŕiro) Egun on!

Ametsane.- Berdin zuri ere.

Iduŕe .- Tira,mutil,exeri adi.(Exertzen da Atxukale) Jaunari eskeŕak gaurdaño eztiagu ezagutu,guk jateko bildur baintzan.

Atxukale.- Aurentzian ere ez dezazutela ezagutu.

Iduŕe .-

(Jaraitzen du)

Iduŕe .- Eskeŕik-asko.Zer aizek ekaŕi au onera?
Atxukale.- Zer aizek? Aizeak ekartzekoak izan banitunan oraindik ere Talaxa muturían izango nitunan.Baretasunak ekaŕi naun eta ez beste ezerk.
Iduŕe .- Orla obe.(Ametsaneri) Zu aztua izango zera,noski au nor dan?Au,Atxukale degu.Aŕantzale oso trebea.Jaizkibel dik asi ta Pinisteŕeraño ezta izango itxas bazteŕetako eŕietan berau ezagutzen eztutenik.Beti alai,asaŕerik eztu.Dantzan eta kantuan berauxe bezelakorik beste bat ez Eskalerían.Beronen amak esaten ei zuan dantzan jayoa zala.
Atxukale.- Iduŕe...ezaiz makala berdela.Txaxio edeŕik biardiñat ibili i añako bat katigatzeko.
Iduŕe .- Gezuŕik eztiat esan.
Atxukale.- Jakiña.Nola esango den ba.Potxia txibiyatzat saltzian ere ezten esaten.
Iduŕe .- Saldu ta esan ezpadiat ere salneuría bakoitzrena artuta.Nik eztiat gezuŕik esan.Ik dantzan egin ukana nork egin dezakek? Esantzak?Miluriakin egin uken apoztua ez ote ukan Euskaleŕiko txapelduntza merezitzeko añakoa?
Atxukale.- (Sinistuaz) Oŕenbesteraño?
Iduŕe .- Baita geyago ere.
Ametsane.- Jakin nezake zer egin zuan?
Iduŕe .- Jakingo eztezu ba.Beronek esan da gañera.Tira Atxukale,kontatu akiguk nola izan zan.
Atxukale.- Ara ba.Ezta gero aŕokeriz,e?
Iduŕe .- Ez,mutil.
Atxukale.- Gaztelupen nork obeto kantatu sariketa jaŕi zuten eta Arnopetaŕok ere an giñan.Kantatu ta sari edeŕa irabazi ondoren Axal en txalopan marmitekoa jan eta bagatozen bertan alai-alai.Eztakit nondik,ezta baida sortu zan.Batzuek Miluria lenago nekatu baitz txistu jotzen ni dantzan baño.
Iduŕe .- Eŕomeri geyago nai dezu itxas erdian?
Ametsane.- Jaŕai aurera.
Atxukale.- Asi bagiñan asi giñan.Ango,!Jeupa!!Aori dek!!Erain! ! Erabilli makillak! eta beste nere aldezko uxuak entzun da,aingira baño labañago nintzan;abrin edo momatxak ez nik aña biuŕi.!Eneukan eŕeuma min bildur aundirik! Txopa gañian,izerdi patsetan,blai-blai;oñutzik;batean orpuakin eta bestean biatz mutuŕakin,noiz nai belaunakin luŕa juaz,Miluriaren txistu soñuan,tikiti-takata,tikiti-takata Kotxoŕok danbor gañian baño aŕara aundiagua ateriaz.
Ametsane.- Ta nork irabazi zuan?
Atxukale.- Inork ez.Gu nekatu baño len txalopa kayera sartu zan eta utzi egin genuan.
Iduŕe .- Entzun dezu,Ametsane?
Ametsane.- Zuk esandakoa ez dago gaizki.Zuekkin egotea atsegin zait, baña joan bear det.(Jeikitzen da)
Iduŕe .- Naidezun bezela.Badakizu non bizi geran.
Ametsane.- Eskeŕik-asko.Agur zuri ere Atxukale.Poztutzen naiz zu ezagutzeaz.
Atxukale.- Baita ni ere.
(Ate ondora laguntzen dio Iduŕek)
Ametsane.- Jaungoikoa zuekin bedi.
Iduŕ-Atx.- Agur,ondo juan.

(Jaŕaitzen du)

Laugaŕen ageŕaldia

IDURE TA ATXUKALE

Atxukale.- Ori emakume ondo itz egiña. Nungua den?
Iduŕe .- Jayotzaz Arnopetaŕa,baña urte askoan Apaingo Markesen etxean neskame edo etxeko bezela daudatena bere gurasoak il ziranetik.
Atxukale.- Eta ik nundik ezagutzen den?
Iduŕe .- Aŕaiak saŕi erosten dizkitalako.
Atxukale.- Emakume ona dirudin.
Iduŕe .- Izan ere ala dek.Bagaituk makiña bat oŕen oinperako ez geranak. Baña,jakin nezakek zer aizek ekaŕi auan onera?
Atxukale.- Antxon da sartu dirala esatera etoŕi naun. Agian estututa egongo aizenala ta.
Iduŕe .- Etzak uste,Ametsanek albistea ekaŕi baño len estuta galanta igaro diat.Izan ere ez ukan gutxiagotarako.
Atxukale.- Ura juan unan eta gero gerokuak.
Iduŕe .- Ala bearko.
Atxukale.- (Biotzian eskua jaŕiaz) Badakin neskame oŕexek arako zer bait jaŕi ditala?
Iduŕe .- (Txantxaz) Elgoŕi gaitza sartu ezpadik ala ere.
Atxukale.- Elgoría? Umetan izaten dan gaitza eztaba oŕi?Goŕi -goŕi arpegiya egiten duana?
Iduŕe .- Bai, Batzuei,umetan;besteai,ogei urtetan eta beŕogei urtetan ere badakitek sortzen.Eta iri orain sottu zaik.
Atxukale.- (Arpegira eskua eramanaz) Eztet ba arpegi goŕirik nabaitzen.
Iduŕe .- Iri,ordea, arpegira azaldu beaŕean biotzera jo dik. Zer uste dek, eztiratela nabaitu? Ire elgoŕia Ametsane dek.
Atxukale.- Ametsane?
Iduŕe .- Uraxe.
Atxukale.- Ezpadet arekin beiñere itzik egin.
Iduŕe .- Alpeŕik dituk alpeŕenak. Iri Ametsanek begiak bete dizkik eta... bota treiña.
Atxukale.- Baleiken.Baña ez esan iñori,e? Bestela nere gain ditun izeka guziak.
Iduŕe .- Ara bestea.Elgoŕi gabe uste al dek izaten dirala ezkontzen diranak?
Atxukala.- Orduan Antxon'i ta neri batera etoŕi zaigun elgoŕia?
Iduŕe .- (Aŕiturik) Gure Antxon'eri?
Atxukale.- Ona emen bestea.Ezpalaki bezela.
Iduŕe .- Zer jakin,nik?
Atxukale.- Antxon'ek Apaingo Markesen alaba andregai egin duala.
Iduŕe .- Gure Antxon'ek andregaya egin? Eta Markesen alaba gañera?
Atxukale.- Ura bera.
Iduŕe .- Ago ixilik,Atxukale,orlakorik esan gabe.
Atxukale.- Nik asmatutakua eztan.Atzo gabian Txitxo'neko ardaundegiyan etzenan besterik entzuten.
Iduŕe .- Ezin litekek.Gure Antxon'ek ori baño buru geyago dik eta eztiat uste [illegible] bere bizkaŕetik iñork paŕe egiten utziko duanik.
Atxukale.- Paŕe? Zergatik baña? Esan dizkiatéz,gauzak ondo erabakiak dizkiñe.
Iduŕe .- Ezin sinistu nezakak.

(Jaŕaitzen du)

Iduŕe .- Ezin sinistu nèzakek.
Atxukale.- Ez nai ezpaden.
Iduŕe .- Atxukale,nayago nikek gezuŕá balitz.Antxon,bere ogeita bost urtetan emazte on baten diñ badek,baña Markes baten alabaz usteak artzea zorakeri bat baño eztek.Aita Santiyok argi dagiola.Ixo! Bera datorkiguk.

Bostgaŕen ageŕaldia

IDURE,ATXUKALE TA ANTXON

Antxon .-(Itxasotik baletorke bezela,bere otzara ta guzi) Egun on.
Idu-Atxu.- Berdin iri ere.
Atxukale.- Baator,mutil?
(Exertzen da Antxon .Iduŕek mai gañean janarian jaŕiko ditu ta Antxon´en itxasoko otaŕa ta beste eŕopak antolatzen.)
Atxukale.- Goŕiak ikusiak zeratela uste diat.Talaya muturian egon nauk zuei begira ta partada edeŕik artu dezute.
Antxon .- Partadak bakaŕik? Txaranbel lanbruak ematen zizkigun zotiñak begiak atera eztigunian.
Iduŕe .- (Otaŕa ikusirik)Jaki ontzirik eztaukak emen.
Antxon .- Itxasoak urtara eramango zuan.
Atxukale.- Nik etzekiat zer aize izan dan gaurkua.
Antxon .- Ez nik ere. An sortu ez dan aize motarik ez dek.Oraintxen eŕuko aizez txaranbelak zuri erakusten ziguken eta berilaxe trabaiñaŕu ak mendiak baño aundiagoko katxopak eta zuŕunbillo bildurgaŕiak. Gutxien uste genunean laño itxuak gaba baño illunago eguna jar - tzen zizkigun.Era ortan izin egikerarik egin.
Atxukale.- Alboka edeŕak egin dezuez ba.
Antxon .- Aurtzakera edeŕa ekaŕi diagu San Anton´dik artuta;baña ez beaŕa. Kardala artzerakoan goi- beltzu ziguk eta ~~etc~~ orduan itukan kontuak.Aitz onduan ezer ikusi ezin da.Orduantxen danori,agur!Josefateko zelaira arte.
Atxukale.- Nik,galdutzat etsi zaituztet beintzat,baña ara nun,lañua garbitzean zingirako buxari lotzen zeudeten.
Antxon .- Nik uste diat kanpai soñora-kanpai soñora txalopa berez etoŕi dala.
Atxukale.- Nazaret´kuari eskeŕak.
Antxon .- Bai ta orain bertan nuak Berari ikustaldia egitera(Jeikiaz) Baator?
Atxukale.- Nola ez.
Antxon .- Goazen
Atxukale- Baguaz, Iduŕe.
Iduŕe .- Zoazte ondo.(Bere arasoak egiten joaten da gelara)

Seigaŕen ageŕaldia

BROKEL JAUNA TA [redacted] IDURE

Brokel .- (Kaleko ate ondotik asaŕe antzean) Egun on! (Atea irikiaz) Egun on!(Baŕena sartuaz,asaŕeago) Egun on! Iñor bizi da etxe ontan?
Iduŕe .- (Gelatik) Bai.... (Gelatik azalduaz edo agertuaz) Zu ziñan,Brokel jauna? Gure Joxetxo makal daukat eta ari kontu egiten nengoan.

(Jaŕaitzen du)

Brokel .- Beti daukazute aterik aña maratilla.
Iduŕe .- Okeŕik ez baña.
Brokel .- Ez dakit oker edo zuzen irudituko zaizun.Etxe eŕenta billa nator.
Iduŕe .- (Aŕiturik) Etxe eŕenta billa? Ez toki tzaŕera.
Brokel .- Toki txaŕera edo onera.Gaur bertan bi urteko eŕentak ezbadizkidazute ordaintzen nil jakingo det zer egin
Iduŕe .- (Laŕiturik) Baña,jauna,joan dan Domini Santuetan itotakoen aldezko laguntza artu genunean,an joan nitzaizun,esku zabala bete diru eder artuta etxe eŕenta atzeratuak ordaintzera ta kituta bezela utzi genuen.
Brokel .- Kituta,e?
Iduŕe .- Eztakit ba.Etzirazun esan, beintzat,geyago zoŕik geunkanik.
Brokel .- Ez nizun esango,baña nere liburuak ez dirate gezuŕik esaten. Nere liburuak diotena ura da egia ta ez zure ta zuetakoen usteak. Bi urtetakoak zor dituzute.
Iduŕe .- Bi urtetakoak gañera?
Brokel .- Bi urtetakoak,bai,ta naikoa degu beŕiketarik.
Iduŕe .- (Itun) Baña,jauna, gaur ezin baintzat diru oyek ordaindu,ez dauzkaguz ta.
Brokel .-(Iŕi-paŕez) Ez dauzkazute,beaz? Orla obe.
Iduŕe .- Nola nai dezu guk dirua izatea,etxean izan ditugun ez beaŕekin?
Brokel .- Aski degu.Gaur bertan kale goŕira zoazte,Antxon ek beste asmoren bat artzen ez badu.
Iduŕe .- Zer asmo da ori?
Brokel .- Tokatzen eztzayon tokitik begiak kentzea.Zer uste du arek Markesen alaba arentzako dagoala? ez dago gaizkipentzatua.Obe luke zagardotegi ta baztereetan mozkorkerian ibiltzea baño etxeko zoŕak ordaintzen aleginduko balitz.
Iduŕe .- (Bizituaz) Ez da egia.Gure Antxon ez da mozkorkerian ibiltzen. Orixe baño piñagoa da.
Brokel .- Piñagoa? Piñagoa ta bere burua ta zuena kale goŕian jende guziaren aurean izekaz dala nayagoko du ikusi?

Zazpigaŕen ageŕaldia

BROKEL,IDUŔE TA ANTXON

Antxon .-(Atetik sartuaz) Zer da emen gertatzen dana?
Iduŕe .-(Izkutatu nairik) Ezer ez. Brokel jauna etxe éŕenta arazoan etoŕi da.
Brokel .-(Azaŕez) Etxe eŕenta aitzeki bat besterik ez det.Ire buru bide zoroak kentzera etoŕi nauk.
Antxon .- Poliki-poliki gero itz oyekin.Ni ez naiz zoroa ta.
Brokel .- Zoroa ez baña asko gutxiago ez.Aŕántzale txiro batek Markesen alabagan ametsegite zer besterik dek?
Antxon .- Brokel,jauna, geyegi esan dezu.
Iduŕe .-(Antxon lazaita nayan) Ez agiok oŕen itzai jaramonil egin.
Antxon .- Jaramonik ez? Nere gauzetan ez dedilla sartu....
Brokel .- Ire gauzetan? I sartu aiz nereetan.
Antxon .- Ni?
Brokel .- Bai,i.

(Jaŕaitzen du)

(Jaŕaipena)

Antxon .- Ez da egia.
Brokel .- Baida egia.
Iduŕe .-(Antxon´i) Ixilik ago.
Antxon .- Ez naiz egongo.
Brokel .- Ixilduko aiz,bai.
Antxon .- Ez zuregatik.
Brokel .- Gaur illuntzera baño len.
Antxon .- Ikusiko degu.
Brokel .- Nereakin aterako nauk.
Antxon .- Ezazula uste.
(Irurak batera itz egiñik)
Iduŕe .-(Antxon eta Brokel´en erdian sartuaz) Zaudete ixilik.Zer esan bear dute auzokoak? Ondo zorigaztoko eguna gañkoa.
Antxon .-(Aseŕez)Juanitaren atzetik zabiltz.Ezagun dezu,baña diruak ez du Juanitaren maitasuna erosiko.
Brokel .-(Izekaz) Nor da i,Brokel aberatsaren aurka.Aŕantzale txiro ezereza.Mozkorkeria besterik ez dekan ori.Ikusiko dek nó nor naizen.(Joaten da)

Zortzigaŕen ageŕaldia
ANTXON ETA IDURE

Antxo .-(Brokel asken izak arturik) Zu nor zeraŕ? Ondo daki Arnopeko eŕiak.Amaikari negar galanki eragiten diozuna.Eŕiko jaun eta jabe egiñik,Jaungoiko bildur gabe,galdeon tzaŕa bezela,an brausta ta emen paunpa,gurari lizunak ase eziñik zabiltzana.
Iduŕe .- Naikoa dek,Antxon.
Antxon .- Berak aterazi dizkit.Baña ez dezela aste izan Juanita kenduko diranik.
Iduŕe .- Kalera botako gaituk.
Antxon .- Zergatik?
Iduŕe .- Bi urteko etxe eŕentak zor ditugula edo...
Antxon .- Bi urteko etxe eŕentak zor ditugula? Zein urtetakoak?
Iduŕe .- Ez dakit ba.Ni guziak kituta geudezelakoan nengoan eta orek beŕiz,zor ditugula.
Antxon .- Azkeneko eŕeziborik bai alden?
Iduŕe .- Ez azkenik eta ez lenengokorik.Ez dizkigu iñoiz ere eman.
Antxon .- Jakiña,ez komeni ari; baña ez ari estutu,Iduŕe,lenagoko asmoa beteko diñat eta etxe eŕenta nork eman badiñagu.
Iduŕe .- Zer asmo gero?
Antxon .- Ameriketara,ara joango naun Ulazia tar Txutxo jaunak an dituan itxas ontzi edo lantegietan lan egitera ta bitarte berak emango dixkigu bear ditugunak.
Iduŕe .- Ameriketara? Ez orixe.Ameriketara gabe ere bizi dira emen sendiak eta batzuetan beltz eta besteetan zuri txuri izango diagu zer jana.
Antxon .- Ez da ori guzia.Nik nere asmoak ditunat eta biaŕekoa zaidan aretara joatea.Ire ta ire semetxoaren kontu nork artua izango den.Txutxo jaunagan aita on bat arkituko dezute.Berakin itz egiña naun eta gertu dion guri laguntzeko zer nai gauzetan,atzo esan ziranez.

(Jaŕaitzen du)

Iduŕe .-Nayago nikek buruauste oyek utziko baitu;baña ire naya badek egintzak ondoen derizkiŕiaa.Jaungoikoak asasuna ta nere amar atzapaŕak sendo baituat zer bait egingo diat.
Antxon .-Ulazia jauna gero ez uste Brokel danik.Broke´el ez beste diru izanagatik elizkoya den eta txiroendako esku zabalekoa.
Iduŕe .- Bezekiat eta ez dezala nere itz onek txartzat artu,baña nork emango dagona beti dek eŕukaŕi.
Antxon .-Banoan ba arena paperak eta bear diranak artzera Ameriketarako ta berielaxe emen naun.
Iduŕe .-Ua,aingeruzaintzalleakin.
(Antxon irtetzen da ta Iduŕek zer bait sukaldea antolatu ta gelara sartzen da)

Bederatzigaŕen ageŕaldia

JUANITA TA IDUŔE

Juanita.-(Kaleko atea joten du) Agur Maria sortzez garbia.
Iduŕe .-(Gelatik irtenaz atera joatenda irikiaz)
Juanita.-Jaungoikoak dizula egun on.
Iduŕe .-Baita zuri ere.
Juanita.-Esan dirate aurtxoren bat dezutela gaŕxo ta arentzat pozgaŕitxoa nakaŕen (Boltzatxoa irikitzen asten da)
Iduŕe .-Pozik artuko diot,baña sartu saitez.
Juanita.-(Sartuaz)Eskeŕik asko.(Dirua luzatzen dio)
Iduŕe .-(Artuaz)Eskeŕik-asko.Jaungoikoak ordaiduko dizu.
Juanita.-Zer duala diote,zer gaitz du aurtxoak?
Iduŕe .-Gaitz beŕiren bat.Nola nai ere luzarokoa.
Juanita.-Zenbat denbora darama oean?
Iduŕe .-Lau illabete.
Juanita.-Naikoa luze.
Iduŕe .-(Gela erakutziaz)Emen daukagu.Ikusi nai bazendu...
Juanita.-Nola ez.Nere begiak ikusita sendatzekoa bada ez nuke nai sendagabe izaterik.(Sartzen dira)

Juanita.-(Gelabaŕuan eta Iduŕe berdin) Mutil polita daukazu.
Iduŕe .Ogi puzka baño obeagoada,gizajoa.

Amargaŕen ageŕaldia

ANTXON,JUANITA TA IDURE

(Sartzen da Antxon bere eskuetan paper batzuek dituala ta gelan entzuten duan izketari aŕetaz jartzen da)
Juanita .(Gelan) Badu zure antza.
Iduŕe .-Bai,ala esaten dute ikusten duten guziak,oso-osorik guretaŕa dala.
Juanita .-Ezin ukatu ori.
Iduŕe .-Nere anayari arpegia kendu ta oneri jartzea dala diotenak ere badira.
Juanita .-Senitarterik bazenute beste nik ezagutzen detan batena ere daukala ere esango nuke.

(Jaŕaitzen du)

Iduŕe .-Litekena da.Arnopeko eŕi txikian ia guziok gera senide.
(Gelatik irteeran ustegabez Juanita ta Antxon auŕez-auŕe arkitu dira)
Juanita.-Antxon!
Antxon .-Junita!
Juanita.-Zu emen?
Antxon .-Eta zu?
Juanita.-(Uŕeratuaz)Gaxo bat ikusten.
Antxon .-(Burua jetxiaz lotsatuaz)Ni nere etxean.Ikusten dezu.
(Bitarte ontan Iduŕe gelan sartzen da)
Juanita.-(Geyago uŕeratuaz)Ikusten det,bai.Guzia ezagutzen det.Lenago zu ta orain zure etxekoak.Nere biotzaren jabe egin zerate ta maitasun betez taupadaka daukat,lertzeko zorian.Eta zuri,zer dizu zure biotzak?
Antxon .-Juanita,nayagonuke ez itz-egin.Lotsaren lotsaz ondo eza egiteko eran nago.
Juanita.-(Antxon en eskua arkitu du)Lotsatu?Zergatik lotsatu?Zu aŕantzalea ta ni Markes alaba geralako? Ni etxe aberatsekoa ta zu txirokoa geralako?Zu saŕi aŕai uzai dun jantziaz ta ni uzai gozodunaz gabiltzalako?Baña Jaungoikoagan eztago Markesik ez aŕantzalerik,Jaungoikoa-gan ez dago ez aberatserik e txirotik,Jaungoikoagan eztago ez uzai gozo dunik ez txaŕekorik,Jaungoikoagan guziok gera berdiñak,guziok obenlariak,goziok bere odolaz beŕerosiak;beraz,munduakiko gauzak etzaituzte lotsatu bear.Eta beŕiro neremaitasuna agertzea nai badezu ez nazu lotsatzen esaten,lenago bezela:Antxon,biotz-biotzetik maite zaitut eta nere pozik aundiena zure emazte izatea litzake.
Antxon .-Barkatu,Juanita.Ez da ori bakaŕik.Nik beste asmo batzuek ditut.Ikusten dezun bezela ni aŕantzale[illegible] txiro bat besterik ez naiz.Zuri bayetza eman nizunean ez nuen zure etxean Markes izateko asmoak bultz eginda eman,;zuk agĕtu zenuen bezela,beste iñork beste inork agertu etziralako baizik.Gure maitasunak eragozpenak izan ditezke eta eragozpen oŕen aurka bide bat dago.
Juanita.-Zer bide?
Antxon .-Ni Ameriketara joatea.Aretan diru pixka bat egin,bitartean eskolan ikasi ta iñoren lotsakisun gabe gure ezkontza izateko.
Juanita.-Ez da beaŕezkoa zu Ameriketara joatea.Nik nere-nerea dan dirua badet eta eskolan ikasi dezakezu naiz Euskaleŕian naiz beste nun-nai.
Antxon .-Eskeŕik asko.Lotsagaŕiagoa litzake era ortara.Gizaseme batek ezin dezake ori ontzat artu.Naikoa kemen badet eta nere izardiz irabazi nai ditut bai dirua bai jakituria.
Juanita.-Nai dezun bezela,Antxon;baña gure arteko maitasuna ez dezala ostu.
Antxon .-Ez nuke nai.
Juanita.-Noiz joateko asmoak dezuz?
Antxon .-Biar Jaizkibel-zulotik irtengo dan itxasontzian irtego det.
Juanita.-Biar?
Antxon .-Biar bertan.Ona emen arako agiriak.(Erakutziaz)
Juanita.-Ene Jaungoikoa,lagundu eiguzu.
Antxon .-Lagunduko digu kameni bada.

(Jaŕaitzen du)

(Jaŕaipena)

Juanita.- Ez astu,gero,andik idaztea?
Antxon .- Ez orixe.
Juanita.- Ezta zure oitura on eta garbiak?
Antxon .- Ezta ere.
Juanita.- Azkenik artu dezagun Jaungoikoa bion bitarteko.
Antxon .- Baita ori ere.
Juanita.- Eta agurtzeko,auxe esaten dizut,biotz-biotzez,lenago beste batek esana.

" Ez dezazula astu gaur emen esana
Itz baterako au da eskatzen zaizuna
Izan zaite,nun ta nai,BETI EUSKALDUNA"

ZAPIA

"A R N O-P E"

BIGAŔEN EKITALDIA

12.-

Antzeztokia Markesen etxea ta berari dagokion eran apaña, eŕezibidor bat bezela. Mai, aulki batzuek ta ez bedi faltatu karta egiteko bear dira gayak.

Lenengo ageŕaldia

(Juanita exerita esku lana egiten eta Ametsane bere etxeko lanak. Zapia iriki ta laixter Juanitak bere lanari utzi ta idazki ateriaz ura irakurtzen asten da. Ametsanek artu du ta izketaldia asten da)

JUANITA TA AMETSANE

Ametsane.- Orain ere bai?
Juanita .- Ezin naiz aspertu. Zenbat eta geyagotan irakurtzen detan, orduan ete geyago irakurtzeko gogoa sortzen zait.
Ametsane.- Eun aldiz ezpadezu irakuŕi ezta asko paltako. Neronek egunero-egunero ikusten zaitut artu zenuen ezkero ta .. artu zala eguntxoak dira.
Juanita .- Ogei egun, gaur.
Ametsane.- Egunean bost aldiz irakuŕi badezu oŕa non diran eun aldiz.
Juanita .- Enekian ain kontulari pixkoŕa ziñala. Tira, utzi lanari ta entzun beardezu eun eta batgaŕena.
Ametsane.- Etxe guzia jasotzeko otaindik eta...
Juanita .- Bai naibada. Guzia gero Atxukalegaz pitin bat laburtzea zuen ikustaldia.
Ametsane.- Atxukale? Ari ere itztxo bi egingo nizkioke belaŕi ondora. Lenengoan ziran izurdeak bero; gero, bi pausoan Arnopetik Saturibar-era etortzeko beti du zerbait: Treiña zabaltzia dala, zupillak jotzea dala, itxas ontziari odoldia kentzea dala ta eztakit nik beste zenbat aitzeki. Itxasoan diranean an diralako ta eztiranean ;.... ibiltzeko .. ozpelalak biatzean.
Juanita .- Emakumea, alaxen ere nik Antxon baño zuk Atxukale lenago ikusiko dezu.
Ametsane.- Ezta ori baña kontua.
Juanita .- Tira, Ametsane, utzi zayozu orain Atxukaleri ta Antxon´ek neri zer esaten diran entzun bear dezu. Exeri ementxen.
Ametsane. (Exeritzen da) Ia zer dion ba.
Juanita .- (Idazkia irakuŕiaz)

Karakas´tik 1.9o1 gko. Gararagarillaren 24an

Abeletxe tar Juanita, ri
(Apaingo Markesen alaba)

SATUR-IBAR´era.

Nere biotzeko maite ori: (Irakurtzeari utziaz) Entzun dezu, zer itz goxoak? Karakas´en asko ikasten da.
Ametsane.- Atxukalek Ibiŕiyatik irten gabe dakizki oyek esaten.
(Jaraitzen du)

Juanita .-(Irakuŕiaz) Jaungoiko onari eskeŕak oso ondo iritxi naiz Karakas uri aundi onetara.Iritxi bezin laixter,itxasontziari itxadotzen zeunden eskeldunekin bat egin eta berak emen euskaldunak biltzeko duten " Euskel-etxe" ra ekaŕi naute.Ezin dezaket esan nere poza, ainbeste euskaldunen artean izatea.

San Juan eguna degu ain txuzen ere ta,orko gure oiturai jaŕaituaz, aundikiro ospatzen dagoz,obeto esateko,gaude.Badakizu,euskal usaya dan tokian ezin nik uts-egin,al izan ezkero ta gaur al izandet,Jaungoikoari ta nere lagun beŕi onei eskeŕak,Lagun beŕi onen izenak onek dira: Elortza tar Eujenio,Legazpiara,Aregotar Iñaxio,Elantxobeaŕa,Kanpaidegi tar Alpontxo,Ondaŕabitaŕa, Elosegi tar Jexus eta onen emaztea,Labayen dar Antxon eta "Ira" andereño liraiña.Azkenengo aitatutako onek,Sara,bugaz beste aldeko euskal eŕian urte askoan biziak nai ta Tolosa edo alde ortakoak izan.Orain,emen nere inguruan dira ta oso ondo konpontzen gera gure euskera edeŕean naiz guziok eŕi alde bakoitzetakoak izan.Euskal eŕian ain ezaguna dan " Kontxesi ri" abesti polita abesten daude.Emen,gure eŕitik uŕuti,ikasten da gure jayoteŕia benetan maitatzen bere izkuntza,xaŕa baña gureak ditun abesti ta beste gauzak erabilliaz.Zer besterik esatea nai dezu? Eta zu zela zaude? Or egongo ziñan,noski,noiz nere estitza iristeko.Ona,ba, emen.Ez dezake zu esan atzera laga detanik.Bazenikizu zein luze izan zitzaizkidan bidean egindako egunak!. Eskeŕak lagun pozgaŕi bautzuek nere alde jartzen zirala. Eguzki,Illargi ta ainbeste izar izan ziran oyek, bioi batera xamar argi egiñaz,nere biotzean sortzen ziran ixil-muxuak zuretzat artzen zizkidatenak.

Geyegi luza gabe ta beŕiz laixter ontan jaŕaitzeko asmoz zurea izan nai duan,

ANTONIO MARI

Caŕa Ametsaneri nere aguŕak.

Juanita.--(Idazkia gordiaz) Ta besterik ezer ez.
Ametsane.-Ez? Eztezu eŕazoirik palta eun eta bat aldiz irakurtzeko.Neri Atxukalek orlako idazki xamuŕak egingo balizke milla aldiz ere irakuŕiko nituzke.Baña Atxukalek edo Atxukalen ordez idazten dituana eztakit nongo alemana dan.Arek bere idazkian eztu beste ezer:(luzatuaz bere itzak) " Te digo .....que cojemos poco papardo.Te digo.... que aqui mucha envernada. Y te digo ....." Eta beti oŕela
Juanita .- Jakiña,bakoitzatk bere kontuak.
Ametsane.- Orixe,ba,bere kontuak,eta nik badakizkit arenak zer diran. Ari Atxukale ezizena jaŕi zionak " Nok emango" jaŕi bear zion,Nok emango
Juanita .-Baña esaidazu,zer derizkiozu Antxon'en idazkiari?
Ametsane.-Ura da mutilla,ura.Jaungoikoak dakian tokira joan eta bere maitea beti gogoan.
Juanita .-Ta bere emengo oitura on eta garbiak.
Ametsane.-Bai laixter eginduala lagunaK.
Juanita .-Ta ez nola naiko lagunak ere.
Anetsane.-Ori esan. Emen batzuek gure kanta zar edeŕak astutzen edo beste

(Jaŕaitzen du)

..-kanpokoaz zapaltzen eta an beŕiz,gure kanta zaŕak bezelakorik arkitzen ez.
Juanita .-Iñoiz entzun izan ditut aitatzen dituan kantak " Kotxesiŕri" baña ez det izan aukerarik ikasteko.
Ametsane.-Ez dazkizuzala? Ori esan euskaldun ezkongai batek? Edeŕa kontua.
Juanita .-Zer egite nai dezu,kanta paperik ez det izan eta ..
Ametsane.-Kanta paperik ez? Orain bertan ekaŕiko dizkitzut zun nai bezelakoak.Itxoin pixkat.(Joaten da)
Juanita .-Ekaŕi pixkat.Au poza!
Ametsane.-(Eskuetan paper pilla duela) Ara emen.
Juanita .-Ekatzu.(Artuaz) Ia nola diran
Ametzane.-Biok batera kantatuko ditugu.
(Asten dira abesten)

1
Maite bat maitatzen det maitagaŕia,
Begi edeŕa du ta guztiz argia;
Daukat uŕuti,
Baña ezin kendu det burutik;
Aren itxura,
Saldu albaliteke pixura,
Uŕearen truke,
Nork erosi faltako ez luke(bis)

2
Ogeita lau leguaz nago aparte
Bitartean badaukat milloi bat ate,
Guztiak itxirik;
Nai aŕen ezin egon ixilik;
Beti negaŕez,
Nere maite-maitearen galdez;
Ote dan bizi,
Biotz-biotz~~zelo~~ nereko Kontxesi(bis)

Bigaŕen ageŕaldia

JUANITA,AMETSANE TA MARKESA

Markesa .-(Sartuaz) Ederki zaudete.
Juanita .-Bai,ama.Lenago Amitxeneko Antxon´en idazkia irakurtzen egon gera ta orain "Kontxesi´ri" izena daramaten bertsuak kantatzen.
Markesa .-(Juanitak ematen dion kanta papera artuaz) Kanta politak benetan.
Ametsane .-Ezin obeagokoak.Euskaŕian badira onelako amaika kanta zar batekoz besteko zakabanatuak.
Markesa .-Baita ere esaera zar,ipui ta xelebrekeriak eta abar. Paŕe algara edeŕik aterazi dirate.
Ametsane .-Gaur,orddea,gutxi entzuten dira,zoritxaŕez.
Juanita .-Ametsane,zuk ezin esan dezakezu entzuten ez dituzula.Atxukalek amaika badakizki.
Markesa .-Atxukalek berezko etoŕia dauka.

(Jaraitzen du)

Ametsane.-Naiduana naiduana esango du baña Atxukalek ateraldi edeŕak dauzkaz.
Juanita .-Zuk zeoŕek ere aren antza artzen basoaz batez ere orain,Atxukalekin asi ezkero.
Markesa .-Berohek aren antza artu bear,arek onena artzen baño eŕazago izango du ta..
Ametsane.-Etxe guzia jasotzeko dago ta banoa.Gero ere neretzat izango dira ta (Joaten da)

Irugaŕen ageŕaldia

JUANITA TA MARKESA

Markesa .-(Kanta paperari begiraldia emanaz) Amaika aldiz Sabanilla kalian treigilleak kantatu izan dituzte ta pozez berai entzuten egon ere bai,Zirartegiko etxetik.
Juanita .-(Markesari idazkia luzatuaz) Ama.Ara idazkia ere.
Markesa .-(Artuaz ta aopean irakuŕiaz) Norda au?
Ametsane.-Esan diot ba lenagoere Amitxeneko Antonio Mari,Ameriketara orain-dik orain joana.
Markesa .-Eta,zerbait ba aldu zurekin?
Juanita .-Izango ez du ba.Senar-emazte gayak gerata..
Markesa .-(Aŕiturik)Senar-emazte gayak? Eta noiztik?
Juanita .-Joan dan urteko Malen-txiki egunetik.San Pdro jayetan Joŕai-dantza ta Ezpata-dantza ain egoki egiten edo dantzatzen ikusi nuanean oso nere begiko satu zitzaidan eta Malen-txiki eguneko auŕezkoan,bere auŕera,zoka lagun atera nindutenean berari azaldunion nere maitasuna ta nola bait ere bayatza atera nion eta ordutik gera.
Markesa .-(Oso itun) Juanita;entzun aŕetaz orain biotz-biotzez esango dizkitzutenak/Zure ama naiz ta ama baten egitekoa bete nai nuke berandu baño len.Irakuŕi det Antonio Mari´ren idazkia.Berau irakuŕiaz garbi azaltzendu oso mutil jatoŕa eta begirunea merezi duana dala.Baña ezkontza arazoak,gure artean,Markesen artean,ez dira oŕela izaten.Markes bateki beste Markes edo beste aundizkiren bat bear du.Zure aitak eta nik gure ezkon ametsak izan genitunean,bata besteari itza eman baño len,gure gurasoai azaldu genion gure asmoa ta gure gurasoak,gure artean,eragospenik arkitu etzuten ezkero gure ezkontza aurera eraman genuan.Zuk ere beste oŕenbeste egin bear zenuen eta orduan zure aita-amok jakingo genuen zer egin.
Juanita .-Ama ,barkatu.Ez nintzan arazo oŕetzas gogoratu;baña,orain,beranduegi da.
Markesa .-Beranduegi? Ez da egia.Elizan ezkontzako onespena artu arte ez da beranduegi.
Juanita .-Baña,ama,Antxon´ek eta nik Jaungoikoa artua degu gure bitarteko ta lokaŕi ori ezin dezakegu apurtu,ezkonduta bezela gaude.
Markesa .-Badakit zure sinismen beroaren beŕi.Badakit, baita ere,uts egiterik txikienak ere min aundia emanen dizula;baña zuen zeruko bitartasun ori ez dago zigorpean,nai ta lokaŕia apurtu.Zuen artean

(Jaŕaitzen du)

.- asmo on bat besterik ez dago.Gañera gauz ortaz eztaukagu zertan zalantzan egon.Goikoetxea jauna,gaur,datoŕenean aski degu degu berari galdetzea.Gañerontzean zure aita-amok zuzenduko zaitugu zuri dagokizun senaŕa billatzen eta ezkontza on bat egiten.

Juanita .- Ez ama.Nik ez det beste senaŕik nai,Antxon baño.Bera da nere biotzaren jabe,bera maite det eta berari nai diot nere maitasuma eman eta ez beste iñori.

Markesa .- Aitan baimena ere bear dezu ezkontza ori aurera eramateko,ez astu Asaŕe bizian jaŕiko da zure asmo onen beŕi jakitzen duanean.Izan ere ez da gutxiogotarako.Apaingo Markesen alaba bakaŕa aŕantzale txiro baten emazte.Okeŕagorik ez dezakezu asmatu.Zer ez dute gure gatik esango? A zer nolako paŕeak egingo dituzten gure bizkaŕetik eta guzia amaren esana ez egiteaŕen.

Juanita .- Bai naibadute,paŕe egin dezatela;baña Antxon´ek dirurik ez du izango,Markes izenik ere ez,baña bere ondoan ez daukat lotsarik nun nai arpegia goi-goyan detala agertzeko.

Markesa .- Juanita,gogoan izan Jaungoikuaren aginduak laugaŕenean dion;" Gurasoak aintzatotzat eukitzea"

Juanita .- Gogoan ditut bai Agindu oyek,batez ere aitatutakoa ta ez nukenaibera apurtu;baña Jesukristo,Jaungoiko Semea,luŕeraan zebillela,amar agindu oyen ondoan beste agindu batzuek jaŕi zituan,Sakramentuko aginduak eta Sakramentu oŕetara iri leike laugaŕen aginduaren aurka koxkarik egin gabe.

Markesa .- Ikusiko degu zer dan onena.Bitartean entzungo degu aitak eta Goikoetxea jaunak zer dioten.Berdin bazaizuke idazki au berai ikusteko gordeko nuke.

Juanita .- Zuk naidezun bezela.Crain lorategira noa.

Markesa .- Zoaz bai.

(Joaten da)

Laugaŕen ageŕaldia

MARKESA TA AMETSANE

Markesa .-(Karta esku tartean estutuaz) Ametsane! Ametsane!

Ametsane.-(Sartuaz) Neri deika zan?

Markesa .-(Asarez) Bai. Noiz ta nork ekaŕi zion Juanitari eskutitz au?

Ametsane.-Arnopera joan nintzan batean ango idazketariak berak asti gutxi zuala onera etortzeko ta mesedez Juanitari emeteko esanda nik ekaŕi nion.

Markesa .-Banekian zu izango ziñala.Eta ez aldakizu zuk Juanitak ezin dezazkela idazkirik artu gurasoan beŕi gabe? Edo gurasoak zertarako gera gure auŕaren beŕi ez jakitekotan? Gurasoen egitekoa ez ote da beren seme alabak norekin eta nun dabiltzen jakitea?Eta,batez ere bein adin baterak ezkero?

Ametsane.-Ez dizut esaten ezetzik.

Markesa .-Ez ez dirazu esaten ezetzik,ez;baña zure egintzak nere guraso izatearen aurka daude.

Ametsane.-Nereak?

(Jaŕaitzen du)

Markesa .-Zureak.
Amtsane .-Nik ezpadet egin nere egitekoa betetzea besterik.
Markesa .-Ez da egia.Zure egitekoa idazkia neri eskura ematea zan Juanitari baño len eta orduan ikusiko genuen zer egin.Gañera zergatik ez dirazu esan orain arte Junánita ta Antxoren arteko maitasuna?
Ametsane .-Nik uste nuen bazanekizutela.
Markesa .-Guk jakin?Zer uste dezu zuk guk oŕen beŕi izan bagenu ontan izango giñala?Ez, zuk ondo zenikizun guk ez genikigula baña ez, ortxen, zu zeori nai zeran bezela Juanita ere aŕantzale tartean aŕai usai zikiñez ikuste nai dezu ta ori izan da guzia.
Ametsane .-Ezta egia.
Markesa .-Ixo..!Oŕela ordaĩtzen diguzu zure gurasoak bezela izan gaituzunai? Kale goŕian or izango ziñan txakur gozetia bezela guk artutzerik izan ez bazendu ta orain guri ainkadaka? Zure gurasoak zu ez beselakoak ziran.
Ametsane .-(Erdi negaŕez)Nik eztdiot Juanitari maitasun oŕegatik beiñere ezer esan,ez ondo zagonik eta ez gaizki.Gaur arte eznekian benetan zaramatenik.
Markesa .-Orain badakizu ba;bai aren asmoa bai gurea.Maitasun ori ez degu nai auŕera eramaterik zorakeri bat besterik ez dalako.Zuk Juanitari ixilik iduki nere asmo au,bere gurasoak badakigu Juanita nola zuzendu.Zure gaurtik auŕerako egin beaŕa Juanitari etortzen zaizkan idazkiak neri ekari ta Juanita non dik nora dabillen zain du gero neri esateko.Lan au ez betetzekotan (atea erakutziaz) oŕa or nun daukazun atea zabalik.(Beste zer bait gogoratuaz bezela) A.. ta,beste gauz bat.Gaurtik auŕera,orain arte bezela,ez zaitugu ezagutuko;neskame baño ta neri edo nere senaŕari itza zuzendu bear diguzunean ez astu zuretzat Markes andrea ta Markes zalduna gerala. (Irtetzenda Iduŕe bere lanak egiten jaŕaituaz)

Bostgaŕen ageŕaldia

AMETSANE TA ATXUKALE

Atxukale .-(Dotore jantzia,bere abarketa txuri,illea oŕaztua txapel tartetik agiri dala,lepoan izerdia artzeko musu-zapia ta lore bat aoan.Sartuaz) Aŕatzalde on!
Ametsane .-(Irtenaz) Baita iri ere.
Atxukale .-(Bakaŕik) Muau,muau!...Durduak antxobtari. Anduetako egadía eramandeu berak! Eztago orlako koprerik! Laixter billatuko ditu Xaustanetik Aitz-zurira bitarteko aŕai sarda guziak.(Bere burua - kiko) Baña Atxukale ezadi estutu badakik zer egin eta..Muturka badator~~au~~,auda,brankaz badator eŕia txatxola ta popa aizeko aldera.
Ametsane .-(Sartuaz)Zer dirarduk eure artean izketan?
Atxukale .-Ni ezketan?
Ametsane .-Zertan engoan ba,amaraunak kontatzen? Emen ondo kendutzen dizkitek.
Atxukale .-(Asmatu ezin da) Ez... aura ...zera...San Jeolimo auŕian igaro naizenian Aita guria eŕezatzen asi naun eta batera ta bestera begira astu egin eta orain gogoratu naizenian asitakua amaitzen.

(Jaŕaitzen du)

Ametsane.-Benekian ire otoitza zer izango zan:Eman egiguzu..
Atxukale.-Ia ba.Frai Barkel´el esaten du eskatu egin bear dala beti.
Ametsane.-Eskatzea bada ez ari azken izango.Ez ago i frai Barkel txaŕa.
Atxukale.-(Exeriaz)Baña exeri leike?
Ametsane.-Ankan ospelak al dauzkazek udan ere?
Atxukale.-Ez baña lenguan trein gurdiari butzadaka txiŕist egin niñan eta etzekiñat (erakutziaz) emantxen,zerbait egin niñan orkatillan.
Ametsane.-Nai nikek ikusi ia egia ote dan.
Atxukale.-Ikusi? Ara emen(Erakutziaz Ametsaneri)
Ametsane.-Ia?
Atxukale.-Kontuz gero,e? Miñik eman gabe.
Ametsane.-Ez,motel, ez.Onen makala izan beardekanik ere.Eskua uŕeratzea besterik eztiat egin eta txatxaŕoa baño ikara aundiagokoarekin ago.
Atxukale.-Nayo nuke ezpaneuka.
Ametsane.-Emen eztiat ezer arkitzen.
Atxukale.-~~Atxukale~~(Or agiri dan koxkor ori zer denba?
Ametsane.-Zein au?
Atxukale.-(Min aundia eman balio bezela asten da jeiki ta zalapartaka batetik bestera) Ai!ene!!! ai,ai!!...zer da au? Oraintxen galdu..
Ametsane.-(Atxukale deadarka dabilen bitartean) Ixo! Baña,ixo! Mutil,ixildu ari.Oraintxen kalera.
Atxukale.-(Atxukale pixka bat lazaituaz) Zertzan ura. Zeruko izar guziak ikusi ditunat.
Ametsane.-Izar bustandunak ere bai. Zori txaŕa orduan.Baña oŕek oŕela dirala jakin nezakek atzo zergatik ez intzan etoŕi?
Atxukale.-Esango diñat.
Ametsane.-Gezuŕrik ez gero...
Atxukale.-Ez,ez;egi-egia.Jaungoikuako.Ni emen naguan bezela. Itxasorako girorik etzeguala ta"Zu-lengo" ko kolaŕian batu giñanian Txixariak eta Kalatxorik,eurak Ezkimepeko aitzetatik lapak ekaŕiko zitxuztela ta Txaŕakak eta nik Ipitxar edo Arbepeko aitzetatik lanpernak ekartzeko.Jakiña,guk aratara juan eta etoŕi orduko eguardia zan eta Piñaitegiko zagardegundegirajo orduko aŕatsaldia.Sartu giñan an eta ara batu ziran gure txalopako lagunak sardiñak mazira bezela.Gero batzuetan tein lanpernai,kraixk lapai ta grik sagarduari ori zan guzia.
Ametsane.-Ortarako obeak zuek.
Atxukale.-Gizonak oŕembeste bear ezpadegu ~~ezpadegu~~ lenegotik pondo aŕiya lotu lepotik eta brasta itxasora.
Ametsane.-Etzaidak ajolik egun guzian upel baŕuan edo Samikollan ostropian egoten baiz;ere baña ez iduki emen iñor kirik eta kirik,kukuen antzean,ziŕikitxu danetatik atarira begira.
Atxukale.-Ala izan dedilla.
Ametsane .-Oraindik euk izangoituk artzekoak.
Atxukale.-Ori al unan trumoi dana?
Ametsane.-Trumoya?Bainkik guzia .Ezetek ikusi gure etxeko andriarena asaŕea une batean.Uste nian jango niñuala
Atxukale.-Zer,tramana al den ba.
Ametsane.-Etzekiat tramana edo tolla dan baña bildur nauk.Baña guazik emandik ura agertu baño len bestela nere gain ~~dutu~~ dituk loŕak.
Atxukale.-Baña zer dala-ta?
Ametsane.-Esango diat baña guazik.
Atxukale.-Gaen,bai,gaen,gure txalopa mutillak esaten duan bezela.
(Jaŕaitzen du)

Seigaren ageraldia

MARKESA TA APAIZA

(Apaiza ta Markesa batera elkarekin sartuaz)

Markesa .-Baneukan zurekin egoteko gogua gaur.Baña exeri gaitezen. (Exeritzen dira)

Apaiza .-Emen naukazu ta zuk esango dezu zer dan entzun bear detana.Nik egitekoa bada badakizu beti gertu nagola.

Markesa .-Eskerik-asko. Zure laguntza izango nuela banekian.(Idazkia irakurtzeko emanaz) Irakuri zazu ta gero itz egingo degu.

Apaiza .-(Bere arterako irakuriaz arpegi alai alazarekin) Egingo nuke beste batek ezetz egin onen beste.Ez da nola naiko euskalduna berau.

Markesa .- Baña idazkiari zer diozu?

Apaiza .-Oso ondo egiña.Bere ango kontuak ziatz esaten ditu ta ...

Markesa .-(Urduriturik)Ta geyago?

Apaiza .-Gazteen kontuak.

Markesa .-Gazteen kontuak? Eta kontu oriek,zer derizkiozu?

Apaiza .-Badakik nora zoazen.Nonbait emen irakuri detanez Antonio Marik eta Juanitak zerbait beren artekoa dute.

Markesa .-Ori ba,zerbait baño geyago ere bai,Juanita berak aitortu dit guzia ta nik nere eragospenak jari dizkiot;baña berak dionez,ezin dezakela bere maitasunik iñori eman Antonio Mari izan ezik eta Antonio Mariri emango diola oso-osorik.Zer dirazu orain?

Apaiza .-Ara, guk apaizok arazo ontaz ezin dezakegu sartu.Ezkontza arazoan,Elizak baditu bere legeak Ezkontzako Sakramentua bear dan bezela eramateko eta lege oyetan eragospenik arkitu ezik guk ezin dezakegu besterik ezkon onespena eman baño.Orain zuk eragospen oyetanoren bat badezu,beartua zaude bear dan lekuan eta bear dan eran azaltzeko.

Markesa .-Ez ote da naikoa eragospen Markes alaba bat arantzale txitoakin ezkondu nai izatea?

Apaiza .-Ez nuke zuri min ematerik nai; baña beste eragospen aundiagorik bien artean ezpadago,ez .Ez da naikoa eragospen ezkontza ori galerazteko.

Markesa .-Ikusiko degu,aitaren baimena ere beardu-ta,aitak zer esaten duan entzungo degu.

Apaiza .-Eta zer dio berak? Noiz datorenik edo?

Markesa .-Ez dakigu. Berak an darabilzkin arazoak pixkat aurera eraman arte etzela etortzerik esaten zigun lengoan.Ez dakit zertarako arako asmoak artu.Azkenean guziekin gaizki jartzeko.

Apaizak .-Asmo txarik izango ez dituala egingo nuke.

Markesa .-Asmo txarak ez dira baña norberentzat irabazirik ez ta buru austea galanki.Lenago ango minetako langilleai beren irabazpideak geitu,zartzarako ta gaixotasunerako laguntasuna sortu arte eztzan geratu.Orain beriz,langileentzat etxebariak eta gaixotegia jasotzen dira ta gerorako ezkola ta eliza jasotzekoak dira langille oren semeak benetako gizon izan daitezen.

Apaiza .-(Poz-pozik) Banekian.Ura da benetako katolikoa."Rerum Novarum"

(Jaraitzen du)

.- Gure Aita Santu Leon Amairugaŕenaren asmoa arek daki betetzen. Gizon zintzoa benetan zure senaŕa.Arek merezi du benetan Markes izena ta ez beste batzuek.Aren erako aberatsak balira Elizak gaur dituan beste etsai ez litzke izango.

Markesa.- Ura beintzat,bere langileakazko gora-beratan ezpadabil eztagola ondo esan leike.

Apiza .- Baña arek Elizaren deyak entzun eta bete egiten ditu.

Zazpigaŕen ageŕaldia

APAIZA, MARKESA TA BROKEL JAUNA

Brokel .- (Sartuaz) Aŕatsalde on!

Apai-Mar- Berdin zuri ere.

Markesa.- (Jeikiaz) eskua luzatzen dio ta Brokelek mun ematen dio) Exeri zaite. (Deyez) Ametsane! Ametsane! (Baŕutik)(Markesa.) Ekaŕi zerbait bero kendugaŕi.

Brokel .- Eztago oraitxen otz aundirik (Izardia kenduaz)

Apaiza .- Ez bear ere.Orai otz egitekotan Gabonetan bero egin bearkolitza keta.

Markesa .- Orduan egitekotan egin dezala orain.Satur-ibar´era oŕegatik etortzen gera;besteetan bero danean emengo itxas-aize edeŕak eta itxasoko bustialdiak artzeko asmos.

Apaizak .- Jaungoikoak egiten dituan gauzai ezin dezakegu esan gaizki daudezenik.Bestela guk nai degun guzia egiteko almena bagenu,nor bizi?

(Bitarte ontan Ametsane sartu ta mai gañian utziko ditu erari bonbil eta edontziak,beriala irtenaz)

Brokel .- Ta Gabriel el zer dio Txoŕomoŕo aldetik?

Markesa .- Oraintxen giñan ba beratzaz izketan.Bere langilleak dirala-ta..

Brokel .- Ura beti berdin.Ez ditu arek nik bezela ezagutzen langille ta beartzuak; beztela ez luke oyen artean ibiltzeko gogoeta aundirik izango.Eŕuki det.Laixter egingo diote atza eman eta besoa artu.

Markesa .- Berak,ordea, oso kontentu arkitzen zala langille artean,esaten zigun.

Apaiza .- Lagun urkoai on egiten dagona beti arkitzen da kontentu.

Brokel .- Baliteke; baña laister aspertukoda,ta nere ustez,lenengotik langilleakaz apurtuko balu,beratzat obe.

Markesa .- Oŕen bildura badet.

Brokel .- Izatekoa da. Langille ayek zulotik irtetzen diranean ikustekoak dira. Zakur amoŕatuak baño ere bagiratu txaŕagoa dute.Nik usdet utsagatik gizona iltera ere jaŕiko lirakela.

Apaiza .- Saŕi begiratu txaŕa ateratzen badute ere aren gizontasuna askorena baño obea da.Badakite beren aldez lan egiten dutenai biotz bero ta xamuŕa agertzen.

Markesa .- Gabriel´el lengoan esaten ziran ango langille ta beartzuak zekulako omenaldia egin ziotela ta bere bizitzako egunetan ez da-

(Jaŕaitzen du)

(Jaŕaipena)

.-la ikusi ainbeste pozezko negar egiten.

Brokel .-Gabriel biotz bigunekoa da ta eŕaz lortzen dute langille oyek beren erara jartzen.Nerekin,ordeą,an egon bear izaten dute,nai badute pozik edo nai badute amoŕuz; bestela.... kalera aburo.

Apaiza .-Ori ez dago ondo,Brokel. Gizonak dira ayek ere gu bezela ta gizon bezela artu bear dira.Guk bezela Jaungoikoaren antza daramatenak anima illezkoŕa izanik.Gizonak gu bezela,Jaungoikoak maite ta Jesukristok beŕerosiak.

Brokel .-Gizonak,bai; baña beste kastakoak,beko kastakoak.Gañera ikusi egin bearda garai bateko Eŕomako edo Greziako beartzoak eta oraingoak.Pozik artuko zuten beartzu ayek oraingoak dituzten legeak.

Apaiza .-Egia ori.Negargaŕia benetan orduko beartzuen egoera;baña Jesukristok " Nere txikienetakoai ere egiten diozutenak neri egiten dirazute " -esan zuanetik asko egin da beartzuen alde,baña orain dik ez da egin Elizak,asi Jesukristogandik eta orain arteko Aita Santu ta eliz gizonak nai duten aña.Or daukagu oraidik orain Leon Aita Santuak argitara eman duan " Rerum Novarum" Doipur-idazkia, benetan katoliko guziak irakuŕi ta betetzen alegindutzeko bidea. Markes jaunak,ezin obeto betetzen du Aita Santuaren esana ta arentzat bai izango dala pozgaŕia Jesukristoren itza:" Gose nintzan eta jaten eman zirazun. Egaŕi nintzan eta eraten eman zirazun."

Brokel .-Nik ere entzuten det Elizaren deaŕa.Baliteke baña ez del nik uts emango Ostiral Deun egunean,an,guzien auŕean agertu beardanean, naiz elizan naiz kalez-kale prozesiuan.Iñoiz beartzuen alde izpaŕangietan diru biltzerik bada ere,an nere izena,D.Trifón Brokel.Eta gau gabetako jairik antolatzen bada gauz ortarako dirua batutzeko,uraxe nere poz aundiena, ~~[illegible]~~ orduan ez dute mingain beŕitxuak jardutzen naiz ta urengo goizerarte dantzan igaro. Baña,zuek,apaizok geyegi sartzen zerate langille ta nagusi arteko arazoetan.Etzenuteke sartu bear.

Apaiza .-Guk badakigu zer dan gure egitekoa ta ez daukagu iñork agindu beaŕik. Badakigu guk esaten ditugun gauz askok min ematen dizkiela batzuei.Egia,eŕegaŕia esan oi zuan nere aitak. Eta beste gabe, nere egitekoak ere baditut eta banoa.(Jeikitzen da)

Markesa .-Bañaeziñaten aseŕatuko oŕegatik?

Apaiza .-Ez,ez.Oituak gera orlakoak entzun eta esaten. Agur eta beste bat arte.(Joaten da)

Markesa .-(Lagunduaz) Agur,bai,nai dezun arte.

Zortzigaŕen ageŕaldia

MARKESA TA BROKEL

Markesa .-Etzenituke artu bear aitzakotzat Goikoetxea jaunak esaten dituanak.Aren eta beste apaizen egitekoa Elizaren erakutsiak zabaltzea da.

Brkel .-Badakit;baña ezin eraman izaten ditut.

Markesa .-Zurekin baño lentxoago nerekin izandu orlako jarduketa baña arek gauz bat esanagatik nik beste bat egin dezaket.

(Jaŕaitzen du)

Brokel .- Zureĝin ere bai?
Markesa .- Bai.Ta esango dizut zergatik. Gure Juanita aŕantzale txiro batekin gustatua dala ta ....
Brokel .- Badakit.Amitxeneko Antxon ekin.
Markesa .- Nork esan dizu?
Brokel .- Nork esan diran?(lotsatuta bezela) Albanizuke esan pozik esango nizuke;baña lotsatu egiten naiz.
Markesa .- Lotsatu? Ez da beste munduko gauza izango ba.
Brokel .- Ez,ez det uste baña...
Markesa .- Entzungo dizut.Esaidazu?
Brokel .- Juanitaren pausoak ondo zaintzen zituan batek esan ziran eta ordutik onera badakit nik zer dan samintasuna.Biotzak gauz bat eskatzen eta mingañak ezin esan.
Markesa .- Zer da eskatzen dizuna.Nik ematekoa bada badakizu ez dizutala ukatuko.
Brokel .- Barkatu baña Juanita da neri biotzak espalditik eskatzen ditana.
Markesa .- Juanita? Eta ori esan gabe zeuden? Juanita nai badezu Juanita zurea da.
Brokel .- Bai?
Markesa .- Bai.
Brokel .- Baña,naiko du berak?
Markesa .- Naikoa da zuk nai izatea.Cañerontzekoa nere egitekoa da.
Brokel .- ¡Eskeŕik-asko.Baña aŕantzalea...
Markesa .- Aŕantzaleakikoa ondo asmatua daukat.Arek Juanitari egiten dion idazki guziak geldiazi ta gero gezuŕetako bat egiñaz Antxon il dala,aren biotzeko maitasuna bertan ikko da.
Brokel .- Ederki asmatua.Eta noiz asiko zera lan oŕetan?
Markesa.Gaur bertan,eta zuk laguntzen badiazu idazkia egiten orain berian.
Broke .- Lagunduko ez dizut ba,bai pozik.
Markesa .- Ia. Artu egizu idazteko luma ta papera ta nola ateratzen dezun.
Brokel .- (Idazteko eran jaŕirik) Erdizka ibilli gabe oso-osorik esango diot.(Zerbait gogoratuaz) Eta noren izenean egingo diot?
Markesa .- (Juanitarĕ egindako idazkia emanaz) Orko aitatzen dituanetik,zuk naidezuna artu.
Brokel .- Ondo da.(Begira dio idazkiari ta idazten asi da.Idatzi ta gero Markesari emango dio ta onek ontzat arturik)
Markesa .- Oso ondo dago.Guzia negar pixkat egiten Juanita ikustia izango da; baña gaixotasun gabeko negaŕak ez gaitu estutu bear.
Brokel .- Orain ni banoa.Ez det Juanita negaŕez ikusi nai.Lagunduko diozu bere atsekabean.
Markesa .- Ez estutu.Ama naiz ta badakit nola bete nere egin beaŕa.
Brokel .- Biar arte ta ia guk nai bezela ateratzen geran.
Markesa .- Nai dezun arte.
Brokel .- Agur.
Markesa .- Ondo joan.

Bederatzigaŕen ageŕaldia

MARKESA TA JUANITA

(Markesa exerita dagoala uŕutitik Juanitaren abestia entzun uŕetatzen)

(Jaŕaitzen du)

Juanita .-(Abesten eta geroago ta uŕerago entzungo da areh eta sartu arte)

Ixxasuan laño dago
Arnopetik Karakasaño
Nik zu zaitut maitiago
Aŕaintxuak ura baño

Markesa .- Oso alài zatoz?
Juanita .- Orain abestudetan abesti au Ametsaneri entzunaz ikasia det.Arek Bayonako alderañoesanten duan ordez nik Arnopetik Karakasaño esaten det.
Markesa ,- Karakasaño? Ango idazkia izan beardu aor mai mai gañean dagoana.
Juanita .- (Pozez idazkia artuaz) Au poza! Zer esaten ote dit?(Ikusten du Antxon´ena ez dala) Aregona da.la? (Irakuŕiaz)

Karakas,1.9ol gko.Uztaillaren 31 ´an

Abeletxe tar Juanita´ri

SATUR-IBARéra

Ene andereño agurgaŕia: Mingotsa benetan neretzat eginkisun au bete beaŕa,baña lagun on baten esana ezin bete gabe utzi.Zu ainbeste maite zinduzan Amitx dar Antxon Jaungoikoaren besoetan il da.

(Bukatzeko asti gabe zoro bat egiñik asten da batera ta bestera batean negar eta bestean izketan)

"- Il da.! .. Antxon il da!! Ai ene ama!!.... Antxon il dala! Antxon gizajoa!!! Neregatik il da,neragatik!!! ..... Zergatik joan ziñan? Zergatik baña?.. An Iltzeko.Ta ni emen bizi. Ez?... Ez det nai bizi. Zu gabe ez det nai!!Zuregana nai det. Eraman ni,Antxon,eraman!! Eraman zure ondora!!!...(Markesaren gañera etzatzen da)

ZAPIA

"A R N O P E"

IRUGAREN EKITALDIA

Arnope eŕiko kale-kantoi bat adierazten du antzeztokiak;eskui aldetik etxe eŕenkada;ezkeŕean zuaitz batzaek;atze aldean Markesen etxerako atea ta ate ondoan exertokiak.

Lenengo ageŕaldia

AMETSANE TA IDUŔE

(Eskui aldean Ametsane ta Iduŕe luŕean exerita aŕantzarako trein edo sareak egiten eta zapia irikitzen asi bezin laister "Ni naiz emakume bat" abestia edo beste euskel abesti bat abesten)

Ni naiz emakume bat aŕain saltzallia,bai,bai.
Gizonak itxasotik dakarten guzia.
Naiz legatz ta naiz bixigu,atun sardiñia,
Mielgia,txipiroya badet aingiria.

Itxas aundirik
Aundiagorik
Aŕapatzen badau
Azpian ! sast!
Nago galdurik.

Bigaŕen ageŕaldia

AMETSANE,IDURE TA APAIZA

Apaiza .-(Zuatz artetik txaloka agertuko da) Gora zuek! Eztago zuei irabaztekorik!
Iduŕe .- Guri entzuten zegoan berori?
Apaiza .- Bai ta pozik egon ere,zuen abesti edaŕak entzuten.Onanutz nentoŕen eta ara nola,
Ametsane .- Jauna,ez luke beroŕek atzik emango zergatik abesten ditugun onelako abestiak.
Apaiza .- Abesti oso politak eta gure-gureak dira.Lako
Ametsane.- Egia,oŕegatik ere bai;baña,abestuaz lan geyago egiten degulako.
Iduŕe .- Ala da.Abestietan ere baditugu gure abesti artuak,gure atzapaŕak biziago erabilli azten dizkigunak.
Apaiza .- Litekena da.Esku lana egiten dezutenak ori esaten dezutenean sinistu egin bear.
Iduŕe .- Berori emen dagoan ezkero mesede bat eskatuko nioke.
Apaiza .- Nik egitekoa bada.
Iduŕe .- Guri baño ziuŕago emango diote beoŕeri ta Nazaret'koaren jantzi zatitxoak ekaŕiko baliguke,sare beŕiai ipintzeko,aŕai geyago aŕapatu dezaten.
Apaiza .- Aleginduko naiz zure naya betetzen.
Ametsane .- Ekartzen badizkigu uŕengo bixigu garayan txalopa bedeikatzeko

(Jaŕaitzen du)

.-berońi deituko diogu.

Apaiza .-Nerí?

Ametsane .-Bai jauna ta neronek emango diot gallueta txikia Atxukaleri ta arek erakutsiko dio non gurutziak egin txalopari.

Apaiza .-Baña orain ez alduzute alargunen urak eramaten?

Ametsane .-Alargunen urak? Ez jauna.

Apaiza .-Iñoiz ikusi izan ditut ba eguardiko amabietan ur bedeinkatuak artzen, eleiza banatan, iru alargunek?

Ametsane .-Orain ere artzen dira baña ur ura ez da izaten bedeinkatzeko gaitz-esan edo biraua kentzeko baizik.

Apaiza .-Nik beintzat ikusi izan ditut.

Iduŕe .-Amaika orlako gauz bazituzten gure auŕerokoak.

Apaiza .-Ur bedeinkatuak gauza txaŕik ez du; naiz iru alargunek eraman, naiz ezkonduak naiz ezkon gayak.

Iduŕe .-Ez, ori ez det esan nai. Badakit neronek ere. Ez, esan naidet beste gauz oyek... begizkoenak edo oyek.

Ametsane .-Ik beintzat ezin esango den txorakeriak diranik. Ire semetxoari begizkoa, osabaren alkandoran lotara eramanda kedu eiñonan da.

Apaiza .-Noan, noan. Zuek aundiagokoak esango dezuez ta ...

Ametsana .-Joan bedi, bai, egun aundia artzera.

Apaiza .-Egun aundia ez danik ezin dezakegu esan. Ezkontzako Sakramentukoa egun aundia da benetan. Zu ta Atxukale ere, artuko zaituzte Elizak, urteak badituzute-ta.

Iduŕe .-Egoki esan dio.

Ametsane .-Atxukale artu Elizak?

Apaiza .-Zergatik ez ba. Nik uste nuen Markesen etxetik alde zenunean beriela Atxukalekin ezkontzekotan alde zenula.

Ametsane .-Atxukalekin ezkontzeko...! Ez daki beroŕek nor dan ura. Ez dago atxunbartik ura katigatuko duanik. Edeŕa aŕaiña bera.

Apaiza .-Atxunbartak katigatzen ez badu sareak bota.

Ametsane .-Zerbait asmatuko bearko da.

Apaiza .-Agur, agur. Asko egin eta gutxi nekatu. (Joaten da Markes etxera

Ame-Idu .-Odo dijoala.

Irugaŕen ageŕaldia

AMETSANE TA IDURE

Ametsane .-Atxukalek dionez zekulako jaya eraldu omen da Brokel'ek gaurkorako.

Iduŕe .-Ez din gaitz izango. Dirua duanak beti arkituko dizkin ortarako bear dituan aukerak.

Ametsane .-Eliza atarira joan bear diñagu. Ikustekoa izango den oyen elizako irteera.

Iduŕe .-Gogoeta gutxi diñat eta Brokel ikusteko gutxiago beŕiz.

Ametsane .-Neoni ere ez naun Brokel ikusi gura baña ango musikak eta oztantzekoak entzun eta ikusteaŕen.

Iduŕe .-Esan denan ezkero ara joango gaitun, emen ere berdin diñagu ta.

Ametsane .-Jaso ditzagun gure sareok eta, gero-gerokoak.
(Jasotzen dituzte ta joaten dira eskui aldetik.

(Jaŕaitzen du)

Laugaŕen ageŕaldia

APAIZA,MARKESA TA JUANITA

(Apaiza,Markesa ta Juanita atarira irtengo dute Markesen etxetik Markesa oso itun eta gaixo balegoke bezela.Juanita ta Apaiza ari lagun egiten)

Apaiza .-Emengo aize garbiak uxatuko ditu zure buruko txorabiroak.
Juanita .-Ama exeri naitez,exerita obeto egongo zera ta.
Markesa .-Guziak berdin izango dirala badakit.(Exeritzenda)
Apaiza .-Alegiñak egin bear dira.Alegiñak egin ezkero bear bada zuk dituzun kezka oyek ez lirake biziko zure biotzean.
Markesa .-Ni,ordea,kezka onek zearo lotua naukate ta ezin kendu ditut.
Apaiza .-Ikusiko dezu nolako onura egingo dizun emengo aizeak.Ni orain banoa eliza aldera an gauzak gertu izan ditezen zuek zoazztenerako.
Markesa .-Laster gera an.
Juanita .-Bitartean lagundoko diot.
Apaiza .-Gero arte.(Joaten da)

Bostgaŕen ageŕaldia

MARKESA TA JUANITA

Markesa .-(Kezkaz beteta) Juanita pozik zaude?
Juanita .-Bai,ama,pozez nago zure naya betetzera nualako.
Markesa .-Nere naya bakaŕik? Zurea ez?
Juanita .-Bai,nerea ere bai.Baña zergatik zaude ain itun?
Markesa .-Gorputz aldi txaŕa ere bai ta..
Juanita .-Eta ainbeste aldiz galdetze ori ia pozik naizen?
Markesa .-Ezkontza lokaŕi gogoŕa izaten dalako ta lokaŕi oŕekin lotu baño len gauzak ondo egin bear diralako.
Juanita .-Nik,ama,gauzak ondo egiñak ditut,ala uste det.
Markesa .-Nik ere ala uste det baña...
Juanita .-Zer baña?
Markesa .-Aita bizi izan balitz,bear bada,arek obeto antolatuko zituan gure gaurko eginkisunak.
Juanita .-Jakiña aita bizi izan balitz arein gain joango ziran antolakisun onek eta ez genuen izango onebeste buruauste.
Markesa .-Orixe bai,ezkenuela izango oraingo buruauste onek.
Juanita .-Ama,zerbait ixilikoren bat aldezu?
Markesa .-(Bizi erantzunaz) Ez,Juanita,ez.Ez oŕelakorik.Nik ez det ixilikorik zuretzat.Badakizu nere biotza zabal-zabal izaten detala zuretzat.
Juanita .-Zergatik ba ainbeste estutzen zera?
Markesa .-Ara,Juanita.Gaur gabean amets txar bat izan det eta amets oŕek ematen dizkidan buruausteak dira.
Juanita .-Zer amets,gero?
Markesa .-Esango dizut. Zagu txiki bat zan nere ametsetako areriyoa.Bere bi beleŕiak zut-zutik zituala irtetzenzan bere zulotik eta txuxen-txuxen an etortzen zitzaidan.Nik alegin guziak egin aŕen,ura nere ondotik kentzeko,ura nere kolkora sartu-ta biotzen erdi-erdian aginka egin eta joaten zan.Iru edo lau alditan esnatu naiz ta beŕiz loak artzean xagutxoa agertzen zitzaidan,lan berdiña egiñik.

(Jaŕaitzen du)

(Jaŕaipena)

Juanita .- Ametsen gatik ez dazu zertan estutu.Ametsak amets dira ta.
Markesa .- Ala dira baña ain txuxen ere,noiz eta gaur onelako ametsak? Neri,xagutxoa kentzen,gaitz izango zait.
Juanita .- Utzi dezayogun ametsai ta goazen gora onezkero Brokel emen deguta.
Markesa .- Goazen.(Joaten dira)

Seigaŕen ageŕaldia

BROKEL ETA ATXUKALE

(Brokel jauna dotore jantzia Atxukalekin izketan sartzen da iŕi paŕez)

Atxukale.-Guzia gertua dago.Beroŕek esan da bezela egin det.Ondo egin ere. Mikanor´ek esan dit eztala bera paltako,bere lagun soñu jotzalliakin.An egongo dala Siñuaneko auŕian zure kiñurik txikienarekin "Artolak dauka,Artolak dauka"jotzen asteko.Xoxuak beŕiz su-ziririk eztuela baña kai beŕiak egiten daudezenai dunbatekoak kenduko dizkiela ta Goiko Plaza Txikian lertuko dituala.Miluria,an izango da koŕu egiten.Sebero Ituŕinok,bertsoak asmatuak ditu egun ontarako.Gabantxo ta Maxantin,ezpata dantzan.Ikusiko du.Aŕizko Txuŕukak,berak ere,besoa jetxi ta burua makurtuko dio beroŕi.
Brokel .-Poztutzen naiz.Banakian lenagotik zu zein ziñan eta oso pozik nago zure laguntasunaren jabe naizelako.
Atxukale.-Nayago izaten det ontan ibilli,jaten baño ere.
Brokel .-Eraten baño ere bai?
Atxukale.-Baita ere,baña ura eraten baño.
Brokel .-Ondo eratua da guzia.Orain ondo ateratzen alegindu bear zera. A ta,egokia izango litzake an inguruan biltzen diran andre batzuei zerbait diru eman eta gu elizatik irtetzean guri gorak ematen astea.
Atxukale.-Bai,bai,ori ere egingo da.Tato,Kokolori,Traman eta beste batzuei esango diotet; an izango dira.Baña zer dei eteko esango diotet?
Brokel .-Geyen bat dei egin beardutena,gora onek dira:"Gora Brokel jauna!" !Gora Apaingo Markes beŕia! ta onelakoak.
Atxukale.-Ongi da.Utzi nere kontu.
Brokel .-To diru oneketa geyago palta bada etoŕi billa.
Atxukale.-Gero beroŕegaitik esaten zuten zekena zala.Amaikak jardutzen degu jakin gabe,dautzola.
Brokel .-Emen inguruan ibillikozera gu elizaratzean eta ez dedilla iñork musikarik jo emen,Juanitaren etxe auŕean bere aitaren ilondoa gorde nai dute ta.Eta ez iñori esan nik esanda jai onek eratu diranik
Atxukale.-Ez jauna.
Brokel .-Au ondo irtetzen bazait,Kale´nean,ordainduta utzikodizkizut il ontako zure ardoak.
Atxukale.-Eskeŕik-asko.Banoa,ia dana ondo gertua dagon ikustea.
Brokel .-Zuaz,bai.

(Joaten dira.Brokel Juanita ren etxera ta Atxukale kalera

Zazpigaŕen ageŕaldia

IDUŔE TA AMETSANE

(Kale aldetik sartzen dira)

Ametsane.-Ortxen zuaitz artean geratuko ninduken.
Iduŕe .-Etzan uste.Bertatik baño obetoago ez diñagu ikusiko.

(Jaŕaitzen du)

Ametsane .-Lenengo etxetik irteera ikusi ta gero Mandasketatik ziar Plaza Txikira joango gaitun elizatik irtzera orduko.
Iduŕe .-Egoki asmatuden,gu eskutuan geudela guzia ikusiko diñagu.
Ametsane .-Onezkero ordua den eta emen ditun.
Iduŕe .-Eskutatu gaitezen.
Ametsane .-Bai,goazen.

Zortzigaŕen ageŕaldia

BROKEL,MARKESA TA JUANITA

(Irurak batera etxetik irtengo dira.Markesa ta Juanita jantzi beltzez.Markesa gaixo antzean)
Brokel .-Lentxuago gogoratu banitz Ixaka´ri esango nion zalburdiakin etortzeko.
Markesa .-Eskeŕik-asko.Oñez ere oindo joango naiz.
Juanita .-Bion erdian artuko degu ta eŕexago izango dezu,ama.
Brokel .-Ona nere besoa(Luzatuaz)
Markesa .-Eskeŕik-asko.(Elduaz)
Juanita .-(Markesari elduaz) Goazen astiro-astiro.(Joaten dira)

Bederatzigaŕen ageŕaldia

AMETSANE TA IDURE

(Zuatz artetik agertuaz)
Iduŕe .- Markesa ondoezik alaxen dabillen,oso jausia derizkionat.
Ametsane.- Ezten makala izan baña bere senaŕaren eriotzak asko eragin dion.
Iduŕe .- Aberats artean ere gure artean bezela zori txaŕak izaten dizkiñe. Markes jauna ludi ontatik joateak oyei ere utsune galanta utzi diotene.
Ametsane.- Brokel´ek beteko eztuan añakoa.
Iduŕe .- Poztuko ninduken Juanita Brokel´ekin zoriontsu izatea.
Ametsane.- Juanita argia ta biotz aundikoa den eta; zeñek zekin? Bear bada Juanita ta bere amaren artean Brokel´en biotz gogor eta zikoitza bigunduko eztutenik?
Iduŕe .- Egia den.Emakumezkuok asko egin dezakegun.Txaŕera bagoaz txarkeri aundienak egiñik eta onera bagoaz berdin.Gauza aŕigaŕiagokorik ezin izan.Adan gure lenengo aitari oben arazteko Eva izan unan; baña oben ura garbitzeko Jaungoiko Semeari sortzea emandako ere Maria izan unan.
Ametsane.- Orregatikan ba.Eztakiñat zergatik,baña uste diñat Brokel aŕas aldatukodala ezkondutakoan.
Iduŕe .- Zergatik izango dan ez den salla asmatzen.Aingeru onak aingeru txaŕa oinperatuko dualako, ta Juanita aingeru ona den.
Ametsane.- Orixe bai dala egia,egirik bada.
Iduŕe .- Geyegi luzatzen gauden eta gorutz ere joan beardiñagu.
Ametsane.- Ala den izan ere.
(Joaten dira)

Amargaŕen ageŕaldia

(Antonio dakaŕen zalgurdiaren txintxiŕiak uŕeratuaz entzungo dira ta uŕeratzean Ixeka,zalburdi zuzentzallearen abotsa.Onek ez du antzeztokira irten bear)
Ixeka .- Geldi! (Zalburdia gelditzenda)

Antxon .- (Zalburditik jetxi baliz bezela,antzeztoki ertzean agertukoda ta Ixeka´ri) Zenbat da zurea?
Ixeka .- Eman naidezuna.
Antxon .- (Zakeletik dirua ateriaz ta eskua kanpoko aldera ateriaz kandoan dan bateri emango balio bezela)
Ixeka .- Eskeŕik-asko.Zoŕoto onek nora eramango ditut?
Antxon .- Zuk nai dezun tokira;nai badezu Itxuanera edo bestela Kanutonera.
Ixeka .- Itxuanera eramango ditut,Kaxpar-Bartolo or ikusi det Kanteratzian Biotexekin eta arek lagunduko dite.
Antxon .- Naidezun bezela.
Ixeka .- Agur.(Entzuten da zalbudia joaten.

Amaikagaŕen ageŕaldia

ANTXON ETA GERO ATXUKALE

(Zalgudiaren txintxiŕiak ixiltzean Antxon antzeztoki erdira joaten da ta an geldi-geldi oldozkor eta alai.Abestia entzungo da kanpotik eta abestiak " mun ematera " esaten duanean luŕari,makurtuta,mun emango dio)

(Entzungo dan abastia)

O! Euskal-eŕi eder maitea,
ara eman zure semea,
bere luŕari mun ematera
beste gabe etoŕia,
zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat il arteraño
gorputz ta anima guzia.

(Abestia bukatzean ikusi du Atxukale datoŕela ta Antxon zuaitz artera izkutatzen da Atxukaleri berak uste eztuala agertzeaŕeŋ. Atxukale beŕiz berak aoakin txistu joaz ta alai-alai bere artean auŕezkua egiñaz sartukoda era onetan pixkatean jaŕaituaz,baña arako batean Antxon agertzen zayo zuatz artetik eta uste du Antxon´en animea dala ta ikaraz jartzen da.Antxon ek Atxukaleren estualdia ikustean Carbitokitik irten balu bezela itz egiten dio lenengo.

Atxukale .- (Auŕezkoa egiteari utziaz) E!!!.. Antxon bizia a la Antxon ildakua zera?
Antxon .- Antxon ildakoa.
Atxukale .- Ba...ba...ne ...kian. Ez.. ez...ezetz....e...e..saten zuten ba...ba.. baña. Zu il ziñan. Ez uŕeratu,e? Eŕekonazu-ta. Nola esaten da?(Gogoratzen da) A,bai! Auŕetik eta lau pausu atzetik.(Aitearen egiñaz) Esan nai det,lau pausu atzetik baña zeu nere auŕetik. Ta zer naizu,Me...me..zia?
Antxon .- Bai Jesus Nazaret´koaren auŕean eta Ametsane ere dijoala.
Atxukale .- Bai,bai.Aterako degu., baña Ametsanek ez ditsinistuko?
Antxon .- Eman zaidazu musu zapia ta or jaŕiko dizut ezaugaŕia.

(Jaŕaitzen du)

Antxukale.- Badakizu ez detela bein ere erabiltzen. Oŕa txapela(luzatuz)
Antxon .- (Txapelari kolpe egin beaŕean lepotik kolpe egiten dio)
Atxukale .- (Kaŕaxika) Ai!!!! !Eŕenau !!!!(Ikara bizian)
Antxon .- (Algaraz) Ez motell. Ezaut eŕeko.
Atxukale .- Baña,Antxon, bizi alaiz? Egia bizi aizena?
Antxon .- Bai,motell.Ez nauk ikusten?
Atxukale .- Bai,baña.....benetan....
Antxon .- Bai,Atxukale.Oraindik bizi nauk eta auŕera ere bizitzea nai nikek.
Atxukale .- (Lazaituaz) Ez dek estualdi txikia eman.Garbitokitik etoŕi intzala uste nian.
Antxon .- (Algaraz) Ameriketa Garbitokia dala badeitzok ala dek,Karakasko Garbitokitik etoŕi nauk.Ez aluken etortzerik nai?
Atxukale .- Naiko ez nian ba.Ori esan? Ire eŕia dek eta ire eŕira etortzea zuzena dek.
Antxon .- Orixe bai.Naikoa luze izan zaidak.Nere biotza or izan diat beti Ipaŕagiŕeri antzera esaten:" Eŕialde guzietan tokionak badira;baña biotzak dio zuaz Euskaleŕira."
Atxukale .- Poztuko intzan eure burua etxera uŕeratzen ikusi dekanian?
Antxon .- Nola ez poztu? Atzo gabean lenengo Maltzaku,Iger,Biaŕitz eta Igeldoko itxas-argiak ikusi ta gaur goizean goiz,danen gañetik,Anboto,Gorbea ta Izar-aitz ikustean ezin dezaket esan nere biotzean nabaitu detan poza.Poz ori,nabaitu egin bear da ta nabaitzeko,Euskal-eŕitik,gure eŕitik kampora bizi.
Atxukale .- Sinisten diat.Iñoiz Asturias aldera joan izan naizenetan neuk ere nabaitu izan diat.
Antxon .- Poz ori ez dek erosten.Poz ori ez dek beste exerguk gurea maitatzen degulako,maitearen ondora irizteak ematen diguna.
Atxukale .- Eta guk Arnope maite diagu.
Antxon .- Nik bai,beitzat; benetan maite diat Arnope nere jayoteŕia.Zaŕa,baña neŕia.Ementxen jayo nindukan,ementxen kristau egin.Bertan Lenengo Jaun Artzea ta gañerozko eliz bideak ikasi.Beronek ikusi nauk azten eta bizitza auŕera eramaten.Beronexek gordetzen dizkik bere babespean nere ama ta etxekoak.Bertan nere aitaren ezuŕak eta hereak ere emen nai nikek tokitxo bat izatea.Erbesteon gabiltzanok gukakiguk gure eŕia maite izatea zer dan. Gure eŕia maite ez dutenak dijuaztela erbestera. An ikasiko dute beren jayoteŕia maitatzen.(Izketa aldatuaz) Eta i beti bezin alai.Zerdek gaur ain alai ibiltzeko?
Atxukale .- (Esan nai ezta bezela) Gaur? Gaur?
Antxon .- Bai,gaur? Zer dek or dabilkiten musika soñu,daupateko ta...
Atxukale .- Zera ....ura.... jaya... ez bestela.
Antxon .- Zerdek,bat batean toteldu egin alaiz?
Atxukale .- Juanbiaŕa zaukat. Banoa.
Antxon .- (Jakin nairik) Baña esan zak nora? Zer dek ez esateko?
Atxukale .- Aura.Ezkondu.Brokel.(Dijoala) Junitakin.
Antxon .- Juanita ezkondu?(Laŕituaz) Ez.Ezinditeke.(Laŕiago) Ez , ori,ez. (Ikusten ditu datozela) Bai,egia da.(Biotzari elduta miñez) Ai ene! Zerda au? (Jausten da zeŕaldo luŕera)

(Jaŕaitzen du)

Amabigaŕen eta azken ageŕaldia

GUZIAK AGERTZEN DIRA

Juanita .-(Baŕutik Antxon erortzen ikusi du kaŕaxiz asirik) Gizon bat erori da.Guazen pixkor!

(Juanita,Brokel eta Markesa sartzen dira.Zuzen-zuzen Antxonengana joaten dira.Juanita ta Brokel artean Antxoneri burua jasotzen diote ta Juanitak ezagutzen du)

Juanita .-Antxon da !!.(Negaŕez) Iltzen dago!! .... Bizi zan eta iltzen dago.

Brokel .-(Apaiza! Sendagilea!

Juanita .-Barkatu,Antxon !.Ilziñala uste nuen.Barkatu.Ondo daki Jaungoikoak nere eŕua ez dala izan. Ama,Antxon bizi zan.Antxon,oroitu zaitez zeruaz.

Brokel (Batera) Apaiza.Datoŕela pixkor.Sendagillea ere bai.
Markesa ( ) (Kanpora begira) Goikoetxea Jauna! Goikoetxea!Pixkor6 Atxukale! Zue bai.

Apaiza .-(Antxon'en gana zuzen joanaz ta berari elduaz) Utzi bioiri bakaŕik! Aitortza entzun bear diot eta. Antxon,entzuten dirazu? (Bitarte ontan irtenzen dira beste lagunak)

Antxon .-Bai jauna.

Apaiza .-Antxon,iltzen zaude ta zure obenak aitortu bear dizkidazuz.

Antxon .-(Ozta-ozta itz egiñaz) Ez ....da ... bea ..ŕik.Gaur..gaur..gaur.. goizean Gazte..Gaztelupen ....Aitortu...aitortunaiz... eta .. Jaun...Jaunartu ere bai.

Apaiza .-Ederki.Orduan ez dezu kezka ematen dizun ezer?

Antxon .-Ez. Ez daukat. Jua...Jua ...Juanitari ...bi....bi..bi itz.

Apaiza .-(Deika) Juanita! Juanita! Zatoz! Antxon'ek bi itz nai dizkitzu egin.(Juanita Antxon'en auŕean negaŕez)

Antxon .-Juanita....ez ... negar ... ez negarik .... egin... Jaun.... Jaun....goikoak .... nai.....du.... ta... Bes ... te... rik... ezer...ez.. Agur..... zerura ... zerurarte..

Apaiza .-Zatozte zuek ere.Atxukale,ua pixkor eta lenengo arkitzen dekan apaizari datoŕela Azken-igurtzia Antxoneri ematera.

Atxukale .-(Joaten da)

Apaiza .-Brokel eldu Antxoneri nik azken otoitzak egin arte.(Liburua atera ta baita gurutzea ere bere kolkotik eta Juanitaŕeman dio Antxoneri musuka iduki dezan)

Markesa .-(Belauniko Antxonen auŕean) Antxon! Juanita! Barkatu!Barkatu neri.Ni naiz oben duna.Antxon il zala nik egin nuen karta.Ez det nai geyago kezka au biotzean detala bizi.Ezin naiz bizi. Ama naiz,eta ama batek bezela ondo nai nuen nere alaba ikusi. Besterik ez da izan.Barkatu,Antxon!Barkatu,Juanita!

Juanita .-Ama,nik barkatzen dizut.

Markesa .-Eta zuk,Antxon?

Antxon .-Bai,Nik ere ...bai.

Brokel .-Barkatu neri ere,barkatu. Juanita maite det,biotz-biotzez maite det eta nereganatzeaŕen alegin guziak egin ditut,ondo edo gaizki ziranik begiratu gabe.Barkatu,Antxon!

Antxon .-(Alegin guziak egin ditu egiñik Brokel'en eta Juanitaren eskuak artu ta biak lotzen ditu,gero esanaz) Brokel ... Jua..Juanita, esan.... zo...zorio...ne...koak.

(Jaŕaitzen du)

(Une ontan sartzen dira Iduŕe,Ametsane ta Atxukale.)

Iduŕe.- (Antxonéngana zuzen-zuzen joanaz zoro bat egiñik) ANTXON !!!.... ANTXON !!!!.....(Negaŕari eman eta Antxon´en bular gañean bere burua usten du)

Apaiza.-(Guzien negar artetik astiro-xamar irakuŕiko du)

Otoitza

Oben egiñaz uŕikitu ta zuganotz zuzentzen diranai esker bereziaz obenak barkatzen dizkiezun onuts,biozpera ta eŕukioŕa zeran Jaungoiko on ori,zuzendu egizu zure begikada eŕukitzua,zure jopu dan Amitx dar Antonio Marigana;artu egiozu apaltasunez egiten dizun bere uts egiteen aitortza ta eman egiozu bere oben guzien barkapena. Amaigabeko eŕukiaren Aita;osorotu beragan gizadi etekoŕaren usteltasun eta txeŕenaren gaiztakeriak orbandutako guzia.Batu egizu Elizarekin,Jesukristok beŕerositako gorpuzki bezela;Izan,Jauna,bere ayots ata negaŕen eŕukia ta zure eŕukia besterik itxadotzen ez duan ezkero,gaitu zaitez ematen adizkidetasunaren esker oso-osoa.Jesukristo gure Jaunagatik.Alaxen

Iduŕe .-(Juanitak eskuan duan gurutzea kendu ta Antxon´eri uŕeratuaz) Esan Jesus.

Antxon .-(Azkeneko arnasatan) Jesus.

Iduŕe .-(Indaŕago) Esan Jesus !!!.

Antxon .-(Ixillago) Jesus.

Iduŕe .-(Negaŕez ta bere indar guziz) ESAN JESUS !!!

Antxon .-(Azken arnasa ematen du)

AMAYA

ZAPIA

P. Lafitte

Oharrak eta erabakia

Euskararen Egune
1949

1. Prix : Bi poema
de Salbatore Mixelena (3000)

2. Prix Zer gizonak
de Yanich Diharce (2000 fr.)

3. Prix Andre Mariari
Luis de Jauregui (1000

Accessits
(par ordre alphabétique)

Diharce : Haizpea
Monzon : Usoak
Sagarzaga : Maitea daukat urruti
Zu nezka gazte

[Euskararen Eguna] 1949

Lyrique.

Maitasun gorna	52
Maitea dauta arrati	52
Bilannabarra / Euzk negarra	58

Euskera azkenekotan	43
Maitasun garbia	44
Andre Maria, zuhenia	54
Yora zuek	43
Euzkera gaxoa	47
Maite oparia	45
~~Nere~~ artaldea	47
Xoriak udabenian	42
Kristo guratzen	48
Hauna lo	46
Gabon eguna	47
Biarritz	44
Zu neska gazte	50
Haitzpea	50
Bi muttiko	48
Zer gizonak	57
Pertsularia et giza gaztea	44
Estranjeran bizi dira	47
Usoak	50
atsegabea	49
gaztekeria	47
Euzkadi	43

Satirique

Euzkeraren alde *

Chanson

Ene Axeari 51 Nere basari churia 49
Nere Axekoathea 47

Epique Oxobi

FSC
TT-COC-2573